

Jose Ramon
Vitoria

Donostiako Orfeoia-
EHU saria jaso du
KULTURA, 22



Aloña Mendik 5-1
irabazi du etxean

UDAk 2-1 galdu du kanpoan eta
Mondrak 0-2 irabazi
KIROLA, 12-13

Swamp
Factory

3.60 aretoa bete
zuten barikuak
KULTURA, 20-21



ASTELEHENKO

Goienkaria

ASTELEHENKA • 2006ko otsailaren 20a • 3. urtea • 90. zenbakia • 0,90 euro

San Viator ikastolaren teknologia taillerria erre egin da

*Atzo goizaldean gertatu zen sutea
Arrasateko ikastolan eta teilarria eta
bigarren solairua suntsitu ditu*

Arrasateko San Viator ikastola
gunean dagoen teknologia taillerria
erabat hondatuta geratu da
atzo goizaldean piztutako suaren
ondorioz. San Viator ikastolaren
eraikin nagusiaren ostean dago
erre den eraikina. Derrigorrezko

Bigarren Hezkuntzako 200 bat
ikaslek teknologia eskolak har-
tzen zituzten eraikinaren bi solai-
ruetako tailerretan. Aurreran-
tzean eskolak non emango dituz-
ten erabakitzeko dago, baina
Ferixalekuian izan daiteke. **2-3**

LAU ORDUKO SUTEA
Domekan, goizeko
ordubatak bueltan ohartu
ziren sua zegoela.
Suhiltzaileek 05:30ean
amaitu zuten sua itzaltzen

DBHKOAK ESKOLA BARIK
DBHko 1. eta 2. zikloetako
hamar gelatako ikasleak
geratu dira teknologia
eskola barik Arrasateko
San Viator ikastolan

ZIRKUITULABURRA
Sua zerik eragin zuen argi
ez dagoen arren,
zirkuitulaburren baten
ondorioz izan daitekeela
uste dute suhiltzaileek

TXARO IRAETA
San Viator ikastolako
zuzendariak esan digunez:
"Han inguruan sua pizten
aritzen dira gaztetxoak eta
arriskua beti egon da"



JOSETXO ARANTZABAL

Teilarria eta bigarren solairua erabat suntsitu ditu suak.

Gerra sasoia gogoratuko dute gaur

*Elgetara datoaz
Alemaniako
hamabost
lagun, 'Gernika
Gogoratuz'ekin* **6**

Bilkura ibarreko presoen alde

*Eguenerako bi
manifestazio
deitu dituzte,
Arrasaten eta
Bergaran* **9**

Markel Blanco lasterkaria Euskadiko txapeldun

Gazte mailako txapeldun da atzo
ezkerro lasterkari arrasatearra.
6.300 metroko proban hartu zuen
esku Lasarten eta bera izan zen
azkarrena. **19**

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoa • Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91 Faxa: 943 76 08 04

GEUREAN

- Eleanitzasunaren gaineko jardunaldia egin dute HUHEZIn | 4
- Espetxeen 15 urte egin dituelako omendu zuten atzo 'Aska' Bergaran | 8



Joxerra
Bengoetxearekin
Europako
Batasunaz berba
egin dugu | 7

SUTEA SAN VIATORREN



JOSETXO ARANTZABAL

Erabat hondatuta geratu dira eraikinaren bigarren solairua eta teilarria, sutearen ondorioz.

SAN VIATOR | ATZO GOIZALDEKO 01:20EAN EMAN ZUTEN SUTEAREN DEIA ETA 05:30AK ARITU ZIREN HAN SUHILTZAILEAK

San Viator ikastolaren teknologia taillerria erre zen atzo goizaldean

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako 200 bat ikaslek hartzen zituzten teknologia eskolak erretako eraikinean. 2. solairua eta teilarria erre dira

Mario Deogracias

Arrasate Pasealekuuan dagoen San Viator ikastetxearen atzeo aldean dagoen eraikinak sua harri zuen atzo goizaldeko ordu batak aldera. Suhiltzaileek 01:20ean jaso zuten deia Zubillagan eta ia lau ordu behar izan zituzten sua erabat itzaltzeko. Eraikinaren goiko solairua –bi solairu ditu– eta teilarria erabat erre dira. Atzo ezkero, segurta-

sunagatik, itxita dago eraikina eta perituek esan beharko dute zein egoeratan geratu den. Izan ere, eraikinaren egiturak ez dirudi, lehenengo begiratuan behintzat, kalte handirik jasan duenik. Horrela adierazi digu Txaro Iraeta ikastolako zuzendariak. Hala ere, kalteak handiak izan dira goiko aldean, hantxe hasi baitzen sua. “Teilarrian piztu ei zen sua eta bigarren solairua ere erre egin da erabat”, azaldu digu Jokin

Agirre erakinaren arduradunak. “Suhiltzaileak etorri ostean, ordu erdi bat behar izan zuten lanean hasteko. Eraikinera heltzea ez da oso erraza eta horrek, hein baten, eragin du sua hainbeste zabaldu izana”, diote Agirrek eta Iraetak.

Sua berez piztu zen, zirkuitulabur baten ondorioz, edo eragindakoa izan den argitzeko dago. Ertzaintza ere izan zen sua piztu zen lekuaren eta perituek ere euren iritzia eman beharko dute. Hala ere, ikastolako arduradunek ez dute baztertzen eragindakoa izatea: “Han inguruan sua pizten aritzen dira gaztetxoak eta arriskua beti egon da”.

TAILER BARIK GERATU DIRA
San Viator gunean, teknologia tailerrean, ia 200 ikasle ari dira. Derrigorrezko Bigarren Hez-

kuntzako 1. eta 2. mailakoak lehenengo solairuan aritzen dira eta 3. eta 4. mailakoak dira bigarren solairuan ikasten dutenak. DBHko bigarren zikloko ikas-

**Teilarrian piztu ei
zen sua eta
bigarren solairua
ere erre egin da**

**“Han inguruan sua
pizten aritzen dira
gaztetxoak eta
arriskua beti
egon da”**

leak dira teknologia eskola ordu gehien hartzen dituztenak astean. Lehenengo solairuko taillerretako materiala errekupera daitake, han suak ez baitu kalterik eragin. Aldiz, bigarren solairuko azpiegitura guztia galdu egin da. Ikastolako zuzendarriak adierazi digunez, “leku fisikoak egokitzeko konpon gaitezke, baina, azpiegitura, hau da, makianak, instalazio guztiak –mekanika, elektronika...– ikasteko behar dena erre egin da eta hori errekuperatzea gehiago kostatuko zaigu. San Viatorreko gunean horixe zen geneukan tailer bakarra. Ferixaleku eta Almenen ere baditugu DBHko ikasketak, hortaz, ikusi egin beharko da zer nolako aukerak ditugun ikasleek euren eskolak gal ez ditzaten”.

SUTEA SAN VIATORREN

• HORRELA GERATU DA SAN VIATORREKO TAILERRA SUAREN ERAGINEZ



Teknologia tailerreko kristalek ere eztanda egin zuten.



Eran horretan geratu da 2. solairuko biltegia.



Tailerreko makinaria guzta hondatu da.



Lehenengo solairuan ez da kalterik egin.

TXARO IRAETA | SAN VIATORREKO ZUZENDARIA

"Ikastola erre zaigu, herriko ikastola"

M.D.

Gau guzta lori egin barik igaro zuen Txarok. Goibel erantzun zituen gure galderak, atzo arratsaldean.

Astelehenetik aurrera zer? Non jasoko dituzte ikasleek teknologia eskolak?

Argi dago patxadaz aztertu behar dela eta ez duela soluzio erraza honek. Ferixaleku edo inguruko beste ikastetxeren baten izan beharko da. Hala ere, gauza bat da espazioa -hori erraz konpontzeko modua izango dugu-, baina ekipamendu guzta galdu dugu. DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek erabiltzen zuten materiala erabat hondatu zaigu.

Goiztxo den arren, zenbateko galerak izan dituzue?

Eraikinaren goiko alde guzta erre da, teilatua eta bigarren solairua. Horri tailerreko materiala gehitu behar zaio. Badiarudi etxea bera ez dagoela kalteuta, baina oraingo ez dago esaterik zenbatekoak diren kalteak. Aseguru etxeako baloratu beharko dituzte kalteak.



JOSETXO ARANTZABAL

Eraikina, hortaz, ezin da erabili aurrerantzean?

Dagoenean ez. Segurtasunagatik ezin da eraikinera sartu. Dena dela, nahiko nuke gure ikasleek suteak eragindako kalteak ikustea. Astebururo aitzetzen dira gaztetxoak inguruetan sua pizten eta, ez dut esaten horrela piztu zenik sua, baina denok ikusi beharra daukagu hau sute batek eragin dezakeenaz ohartzeko. Ikastola erre zaigu, herriko ikastola. Gainera, eraikin honek historia luzea dauka, herritar asko igaro da hemendik, baita ikastolaren aurretik ere.

San Viator ikastolako tailerra aurretik eskola nazionala izan zen

1938az geroztik San Viatorreko klerikoek umeak eskola-tzeari ekin zioten. Sasoi hartan, baina, mutikoak bakarrak ziren eskolara joaten zirenak. Colegio San Josek, Centro Escolar Bolívar zenak, 1961-1962 ikasturtean oinarritzko batxilergoa emateko baimena lortu zuen eta 1965-1966 ikasturtean goi batxilergoa emateko.

Geroago, 1967an, Arrasate Pasealekuko ikastetxeak ateak zabaldu zituen. Orain dela 22 urte (1984an) San Viator ikastola bihurtu zen ikastetxea.

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen teknologia tailerra eta hango materiala erre da

130 metro koadro zituen San Viatorreko tailerrak eta beste 50 metro koadro ondoko gela-biltegiak. DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek teknologia eskolak hartzen zituzten han. Tailerrean hiru zutabe-daratulu, bi zerra, bi arteztekoko makina, esmerila, 10 elektronika panel, erreminta panela, ordezkatze piezen panela (harilik, motorrak, kondentsadoreak, etengailuak...), lan-mahaiak eta aukiak zeuden. Biltegian, berriz, ikasleek egindako proiektuak eta lanerako mahaiak erre dira, besteak beste.

Lau orduz aritu ziren suhiltzaileen 3 kamioi ura botatzen eraikinera

Goizaldeko 01:20ean jaso zuten deia Zubillagako suhiltzaileek. Bi neska ohartu ziren eraikinaren goiko aldetik ateratzen zen keaz. Goizaldeko 05:30ak arte aritu ziren suhiltzaileak sua itzaltzen. Kosta egin zitzaien itzaltzea, egurrezko egiturak su handia eragin zuelako. Sua zerk eragin zuen galdetuta, "zirkuitulaburren bat izan daiteke, baina ez dago esaterik hori izan zen sua eragin zueña", adierazi ziguten Zubillagatik. Lekukoek esan digutenez, "izugarrizko sua ateratzen zen teilitupetik".

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko/blog/komertzialak



- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskal merkeak
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /dragon-
/argi-plastik /oriental
/arregi /ezkutuorly
/blogak/atai /gallastegi
/azkarate /garaia
/joseba /gutzizeder
/EZ-sistemas /irudisport

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com



Goiena.net
Debagoineneko Interneteko ataria

JARDUNALDIAK IZAN DIRA HUHEZI-N | 'JAKINGARRIAK' ALDIZKARIAREN 20. URTEURRENEAN EGIN ZIREN EGUBAKOITZEAN

Eleaniztasuna lantzeko hizkuntzen arteko zubiak landu behar dira

*'Eleaniztasuna eskolan'
izenburuarekin egin dituzte
jardunaldiak, HUHEZIn,
'Jakingarriak'
aldizkariak antolatuta*

Mario Deogracias

Jakingarriak aldizkariak 20 urte egin dituela eta, hura egiten duen taldeak *Eleaniztasuna eskolan* izeneko jardunaldiak antolatu zituen joan zen egubakoitzean. MUren Eskoriatzako fakultatean elkartu ziren 70 lagunetik gora, ia guztiak irakasleak, eleaniztasunaz jarduteko. Goizean teoria eta arratsaldean tailerrak izan zituzten, eta tartean hainbat esperimentzia ezagutzeko aukera ere izan zuten jardunaldietara bildutakoek. Izan ere, lehenengo saioan, esaterako, Pili Sagastak eta Matilde Sainzek beste herrialde batuetan ikusitako esperimentzien berri eman zuten. "Ikasleenganako espektatibak sortu behar dira, erreferentzia marakoak sortzeko eta ikaslearen curriculuma osatzen joateko. Hizkuntza bakoitza bere aldetik antolatzea ez da ona eleaniztasuna sus-

pertzeko", adierazi zuen Sainzek. Horren harira, Uri Ruiz Bikandik ere horixe azpimarratu zuen; hizkuntzak gauza isolatuak lez ez direla irakatsi behar azaldu zuen, "hizkuntzen arteko zubiak eraiki behar dira eta komunean dituzten elementuak ezagutzarako erabili behar dira".

Goizeko lehen etenaldiaren aurretik eginiko galderen artean, eskoletan dauden bestelako hizkuntzak nola jokatu behar den jakin-mina erakutsi zuten entzuleek. Hizlariek azpimarratu zutenez, "ama-hizkuntzak ezinbesteko garrantzia dauka. Hizkuntza trebetasunak amahizkuntzan landu behar dira. Gela bakoitzean dauden hizkuntza kopuruaren arabera hizkuntza komunitateekin harremanak sendotzea ona izan duteke. Gurasoek jakin behar dute garrantzitsua dela ama-hizkuntza garatzea; horixe sus-



Egubakoitzean egin zuten jardunaldia HUHEZIn, Eskoriatzan.

pertu ezean, laugarren hizkuntza, esaterako, leku z kanpo legoke". Horren haritik, familiaren eta hezkuntzaren artean dagoen erabateko banaketaz ere aritu ziren.



MARIAN BILBATUA ETA NEREA ALTZOLA |
'JAKINGARRIAK' ALDIZKARIAREN SORTZAILEA ETA EGILEAK

"Fotokopia ziztrin batzuekin hasi ginan"

Hogei urte bete ditu *Jakingarriak* aldizkariak. Pentsatu zenuten horrenbestera helduko zenik?

Ba, ez. Ilusioarekin hasi ginan, eta inoiz ez dakizu nora helduko zaren. Krisialdiak ere izan ditugu, baina jarraitzeko gogoa izan dugu beti. Hasi ginan oso apal, gauza txikitxo batekin, eta gaur egun ateraten dugun produktua oso ona dela uste dugu. Azkenekoan jardunaldiekin lotutako eleaniztasunaz aritu dira zortzi aditu, eta eskola guztieta eta fakultateetara zabaltzen dugu.

Zer moduzko harrera izaten dueña uste duzue?

Funtzio ezberdinak ditu. Pres-takuntza aldetik asko erabiltzen da, irakasleen artean. Eskoletan, aldiz, gaiaren arabera izaten da. **Hezkuntza gaiak lantzen dituzue. Beti dago zertaz aritu?**

Bai, beti. Eleaniztasuna, psikomotrizitatea haur txikienda-ko... Beti ditugu gaiak eta beharrak. Hurrengoan, esaterako, kulturartekotasunaz arituko gara.

Nola gogoratzen dituzue *Jakin-garriak-en* hasiera halek?

Biok elkartuta gure materia-la eskaintzeko asmoz, fotokopia ziztrin batzuk egin genituen, pas-ta moduko bat jarri eta horrela hasi ginan, oso apal. Orain ere apaltasun horretan ari gara, baina eduki aldetik beste maila bat lortu dugu. Azkenekoan, esaterako, maila alta dagoela esango genuke.

Aurrera begira, zer?

Jada hurrengo zenbakia pres-tatzen ari gara: kultura artekota-suna. Uztalean aterako da, eta jarraitzeko asmoa daukagu kalitatea eta edukia zainduz.

• ELEANIZTASUNAZ ARITU ZIREN LAURAK JARDUNALDIETAN



MATILDE SAINZ |



URI RUIZ BIKANDI |



ROSA ALIAGA |



DIANE LINDSEY |

ESKORIATZAKO
HUHEZI-KO
IRAKASLEA
**"Hizkuntza ikasi
behar da curriculum
osoan normaltasu-nez erabiltzeko"**

"Hezkuntza proiektuaren barruan eraikitzen da hizkuntza proiektu eleanitza. Nahi dena da haurrek hizkuntza ikastea eta curriculum osoa egin ahal izatea, normaltasunez. Eskola bakoitzak bere hizkuntza proiektua sortu behar du, inguru, helburu, ama hizkuntzaren... arabera. Hizkuntza gutxituak sus-pertu egin behar dira; gurean, euskara".

HEZKUNTZA ETA
LITERATURAREN
DIDAKTIKA (EHU)
**"Hizkuntzek
komunean dutena
aprobetxatu
behar da"**

"Irakatsi behar ditugun hizkuntza guztien artean zer dagoen komunean ikusi behar dugu. Orain arte hizkuntzak ikasten dira, elkarren artean zerikusirik izango ez balute bezala. Hortaz, galdera da: zer egin elkarren artean dutena aprobetxatzeko? Komunak diren faktoreetara jo behar dugu eta hizkuntzen arteko zubiak egin, ikasleei laguntzeko".

DONOSTIAKO
BERRITZEGUNEKO
KIDEA
**"Hizkuntzaren
estatu bakoitza
ezagutu behar da
irakasteko"**

"Hizkuntza trataera bateratua eraikitzeko programak egin ditugu, euskara abiapuntutzat hartuta, beste hizkuntzak nola eraikiko diren bideratzeko. Eleaniztasunera heltzeko elebitasunetik egin behar dugu eta klaustrokideei laguntzeko proposamenak osatu ditugu guk. Hizkuntzaren estatu bakoitza ezagutu behar dugu irakasteko".



ARTXIBOA

Akzioen %3 duten bi bazkideekin akzioen erosketa negoziazeko prest daude Gameiko langileak.

Gameiko langileek bazkide txikien akzioak erosiko lituzkete

*Enpresa-batzordeak esan du gaur arte
egongo direla zabalik negoziazioak
“langileon lanpostuak mantentzeko asmoz”*

Monika Belastegi

Egubakoitz eguerdian egindako asanbladan jaso zuten Arrasateko Gamei SA lantegiko langileek gutxiengoa akziodunekin izandako batzarraren berri. Akziodunek, enpresa-batzordearen esanetan, “euren interes pertsonalak gordetzeagatik eta juridikoki legalak izanda 55 familiaren itxaropenak zapuztu ditzakete”.

NEGOZIAZIO BIDE BERRIAK AZTERTU DITUZTE

Gamei SAko enpresa-batzordeak jakinarazi du gaur arte (astelehena) egongo direla zabalik negoziazioak, eta beste negoziazio bide batzuk ere zabalduko dituztela “gure lanpostuak mantentzeko asmoz”. Hala, langileen asanbladak azaldu du, bazkide txikien akzioen erosketa negoziazeko borondatea “etorkizuneko proiektu bideragarri bat arriskuan ez jartzeko asmoz eta gure familien biziraupena ziurtatzeko”.

Horrekin batera, enpresa-batzordeko ordezkariek gehitu dute Gamei SA lantegiarengako “okerrera” egiten duela egunetik egunera, eta irtenbide bat lehenetsi ezean “lantegia ixtea eta aktiboak likidatzea” beste irtenbiderik ez dute la izango. Horren guztiaren aurrean, “sen ona eta ardura eskatzen dugu gaur, astelehena, egingo ditugun negoziazioen ondotik jarraipena eman ahal izateko Arrasateko lantegi emblematicoetako bati”.

• URKULU INGURUA AISIARAKO ETA KIROLERAKO EGOKITZEKO LANAK

DEBAGOIENDARREN BIZI KALITATEA HOBETZEKO URRATSA

Halaxe definitu zituen Txabarri diputatu nagusiak Urkulu urtegiaren inguruan egindako hobekuntza lanak. Lanok ia bukatuta daude eta horixe ikustera hurbildu zen Lurralte Antolaketa eta Sustapenerako diputatu Koldo Azkotarekin eta Arritxu Oliden Aretxabaletako alkatearekin. 627.469 euro jarri ditu diputazioak eta egin dituze: bi aparkaleku 120 ibilgailurendako, 7 kilometroko zirkuitua txirrindulari eta oinezkoendako, eta kirol gunea eta hiri altzari berriak jarri. Debagoiendarrek naturaz gozatuz aisiajdirako eta kirola egiteko gune bat eskaintea izan da lanen helburua.



AMAGOIA LASAGABASTER

18/98+ taldeak deitutako manifestazioarekin bat egin zuten zapatuan

milaka lagun eta alderdi gehienek. Maite Aristegik balorazioa egin du

MAITE ARISTEGI | 18/98+ TALDEKO KIDEA

“Zapaterok ate hau itxi eta berria ireki behar du”

Monika Belastegi

Babes handia jaso zuen zapatuan deitu zenuten manifestazioak.

Oso pozik gaude, bai kopuru aldetik –urreko manifestazioan baino jende gehiago egon zen–, eta baita ere sentsibilitate desberdinak batu zirelako ere. Izan ere, alderdi politiko gehienetako ordezkariak batu ziren Bilbon zapatuan.

Aspaldian halako argazkiriek ez da ikusi. Lizarra-Garaziko denboretatik lehenengo aldia izan da eta hori oso pozgarria dela uste dut.

Eta egindako adierazpenetan guztiek gaitzetsi zuten epaiketaren ixaera.

Lan taldeak bota dugun mezuak beti izan da epaiketak geratu egin behar direla –orain martxan dagoena eta zain dauzenak– eta Audientzia Nazionalari dagokionez, ezin dela halako bidegabekeria egiten dituen tribunal arrotza onartu. Instrukziotik ikusten genuen zer zetorren eta orain frogatzen goaz gero eta bidegabekeria gehiago betetzen dituela eta ezin dela halako tribunal arrotz bat onartu.

Nik uste dut atzoko mezuan guztiak zetozela bat horretan: lehengo garaien ispilua dela epai-keta, azken batean eta beste garai batzuetan sartzen ari baldin bagara, beste jarrera batzuk behar direla ere bai. Baita batzeko bideak egin behar direla ere. Nik uste zapatuan, batik bat hori ikusi



ARTXIBOA

zela, batze hori, guztiok batzeko lekua izan zen, ideia horren inguruau.

Nola begiratzen diozue etorkizunari?

Itxaropenez. Bilbon halako erantzuna ikusita agerian ikus-ten da orain lehen ezkutuan zegoen bidegabekeria. Oso agerian dago eta euskal gizarteak esan zuen zapatuan Bilbon behingoz geratu beharra dagoela.

Orduan, bada, eskaera horren aurrean ezin da beste aldera begiratu eta alarma piztu behar du eta mugitzera bultzatu mugitu behar duenari.

Azkenean, Zapateroren gobernuak egin beharko du zer-bait, behingoz, ate hau itxi eta beste ate berri bat zabaltzeko. Hori-xa da euskal gizarteak eskatu ziona aurreko egunean.

Labur

Ezinegona Oñatiko dendari eta tabernarien artean lapurretingatik

Eguaznetik egunera bitarteko gauean hiru negoziotan lapurreta egin zuten eta beste bi saiakera izan ziren Kale Barria eta Euskadi-ko Etorbidean. Ez da lapurretek gertatzen diren lehenengo aldia, eta tabernari eta dendari batzuek uste dute gauetan Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren zainketa handitu beharra dagoela. Lapurtu zuten hiru lokaletan sistema bera erabili zuten: atea palanka baten bidez ireki zuten eta dirua bakarrik lapurtu zuten.

Hezkuntza eredu berriaren gaineko kanpaina abiarazi dute asteburuan

Otsailetik maiatzera bitartean hezkuntza eredu berriaren gaineko kanpaina abiaraziko dute. Euskal Herri osoan gauzatuko da eta 100.000 sinadura batu nahi dituzte. Debagoienari dagokionez, asteburuan hasi dira dagoeneko kanpainaren gainean kartelak eransten eta gaur, kanpainaren berri emango dute Arrasaten. Horrekin batera, sinadurak batuko dituzte martxoaren 18an Arrasateko Portaloian; apirilaren 8an Bergarako San Martin plazan; eta maiatzaren 6an Elgetan. Guztiak 13:00etatik aurrera.

KALTE-ORDAINAK | GERRA SASOIAN ETA FRANKISMOAN PRESO EGON ZIRENEK KALTE-ORDAINAK JASOKO DITUZTE

Debagoieneko hainbat lagun ari da kalte-ordinak jasotzeko tramiteetan

Langileen diziplina-batailoietan aritu zirenak edo aurrekoan eskaria epez kanpo aurkeztu zutenek kalte-ordinak jasotzeko bigarren aukera dute

Mario Deogracias

70 urte beteko dira aurten altxamendu frankista gertatu zenetik. Eta haren kontra aritu ziren borrokalarien oromenez Nestor Basterretxearen eskultura inauguratu zuten atzo Bilbon. Horrekin batera, gizarte gaietarako sailburu Javier Madrazok aurreratu duenez, gerra zibilean eta frankismoan preso egon zirenak kalte-ordinak jasotzeko bigarren aukera izango dute: 10,2 milioi euro banatuko dira bigarren aukera honetan. Kalte-ordinak jasotzeko aukera izango dute, batetik, lehen epez kanpo aurkeztutako eskariek; bestetik, hilabete baten barruan lehenengoz aurkezen dutenek; eta hirugarrenez, lan-zelaietan aritzera zigortutakoek.

Sailburuak adierazitakoaren arabera, mila bat lagun dira gerra zibilean edo frankismoan preso egonda, aurreko aldean kalte-ordinak jaso barik geratu zirenak. Mila lagun horietako batzuek epez kanpo aurkeztu zituzten eskariak, edo beste barik ez zituzten aurkeztu.

Baina bada berrikuntza bat ere oraingo kalte-ordin hauetan. Izan ere, presoen kategorian sartu dituzte lan-zelaietan aritu zirenak ere.

ESKABIDE BERRIAK

Hilabeteko epea eman du Jaurlaritzak eskabideak egiteko. Lehenengoz eskabidea egiten dutenen kasuan, kontuan hartuko dira aurreko dekretua egin zenean, (2002ko azaroaren 29an) 65 urte beteak izatea. Gainera, euskal udalerrirren baten errolatutu egon beharko dira, urtebetez gutxienez, eta gutxienez 6

hilabetez preso egin zirela erautsi beharko dute. Jaurlaritzak 3.174 eskabide ordaindu ditu, 7.200 eta 9.600 euroko kalte-ordinenkin.

GERNIKA GOGORATUZ, ELGETAN

Gaur bertan, goizeko 10etan, iritsiko dira Elgetara Meaning and Ways of Intergenerational Remembering, Transmission and Sites of Remembrance taldeko hamabost lagun. Alemaniako Gernikara bidean etorri dira eta Elgeta ere bisitatuko dute. Patxi Basauri alkateak egingo die ondoetorria, eta ondoren, Intxorta 1937 kultura taldeko Juan Ramon Garai gerra zibilean Elgetan izandako ikuspegia historikoaz arituko da. Ekitaldian, gainera, herri-tarrek ere parte hartuko dute, eta ondoren, Deustuko unibertsitateko eta Aranzadi elkarteko Paco Ferrandiz arituko da oroimenei historikoaz. Amaitu aurretik, Antsutegi ateratako gorpuen gaineko ikus-entzunezkoa erautsiko da eta Antsutegi base-rriraino bisita egingo dute Elgetako Kafe Antzokira batutako guztiak.

JOSU OTADUI | FRANKISMOAN PRESO EGOTEAGATIK KALTE-ORDAINA JASO DU

“60ko hamarkadan hirutan sartu ninduten preso”

M.D.

Soldadutza egiten ari zela preso egon zen Josu Iruñean, desertore lez epaitu zutelako. Gerora, Donostian manifestazio baten atxilotu zuten, 60ko hamarkadan, eta berriz ere Arrasaten “propaganda ez legala banatzeagatik”.

Nolatan sartu zintuzten preso soldadutza sasian?

Iruñeko kuarteretik etxera etorri ginan, baina bueltako bidean Donostiarra joan nintzen lehenengo eta gero, trenean, txartel barik harrapatu nindutenez, Altsasuko komisaldegira eraman ninduten. Lau hilabetez izan nintzen Iruñeko espoxean. Sei lagunen-dako ziega baten egon nintzen beste 31 presorekin. Baino askerutu ninduten kuarterela bueltan nindoala ohartu zirenean.



Iaz Arrasaten egindako omenaldia, Laubide plazako monolitoan.

ARTXIBOA

Fusilatuen senideei omenaldia egingo zaie ekainean

Orain dela hiru urte egin zieten lehenengoz, Arrasaten, gerran fusilatuei omenaldia. Aurten gertaera haien 70. urteurrena betetzen dela eta, batzordeko omenaldi berezia egitea erabaki dute. “Fusilatuen senideei egitea adostu dugu; orain arte ez da inor gogoratu bizirik geratu zirenez eta azkeneko omenaldia izan dadila gura genuke”, adierazi digu Juan Ramon Garai batzordeko kideak. Ekainaren 11n, domeka, egingo dute omenaldia, Laubide plazan.

Debagoienean 700-800 senide inguru daude eta “guztiei egiten diegu gonbita. Gainera, udalei ere eskatuko diegu laguntza”.

Bazkaria ere egingo dute eta dagoeneko salgai daude txartelak: Bergarako Urkan dendar, Oñatioko Altuna estankoan, Aretxabaletako Gurea tabernan eta Arrasateko Arrasate Kristaldegiaren. Hurrengo antolaketa batzarra otsailaren 25ean izango da, 11etan, Jaizale elkartean. “Batzordea irekia denez, lagundu nahi duena ager dadila”.



Josu Otadui mondragoetarra.

Datuak

- 10,2 milioi euro ditu Jaurlaritzak kalte-ordinenbanatzeko (2002ko dekretuarekin 25,6 milioi banatu ziren).
- Eskabidea epez kanpo aurkeztu zuten 249 lagunek ere jasoko dute kalte-ordinak.
- Hilabeteko epea dago eskabideak aurkezteko.
- 7.200 eta 9.600 euro arteko konpentsazioa jasoko du bakoitzak.
- Aranzadi elkarteko 6 historialari arituko dira artxiboetan bila.
- Aurretek 3.147 biktimak jaso dute kalte-ordinak.
- Diziplina batailoietan aritu ziren 1.000 bat gudarik ere jasoko dute kalte-ordinak.
- Eskabideak egin dituztenetik: lehenengo dekretua onartu zenean 65 urtetik gora izan behar zituzten; gutxienez euskal udalerritzen urtebetetze bizi izan behar dira; gutxienez 6 hilabetez zigortu zituztela erakutsi behar dute.

Gerra zibilean edo frankismoan preso egondako mila bat lagunek, ez dute ordainik jaso

Gaur 10etan Elgetako Espaloian hitzordua egin dute Gernika Gogoratuz elkartekoek

Hortaz, soldadutza osorik egin zenuen.

Baita luzeagoa ere. Frentera ere joan nintzen intendentzian, boluntario. Burgosen, Tolledon eta Murtzian izan ginuen. Gero zortea izan nuen eta Donostiara etorzea lortu nuen, jatekoen biltegi batera. Hura primerakoa zen.

Frankismoan preso egoteagatik kalte-ordinak jaso zenuen 2002an.

Abokatuarekin egin nituen paperak. Gordeta nuen Palentziako La Moraleja espoxetik ateratzean eman zidaten ordainagiria, 1967ko apirilaren 15ean. 7.200 euroko kalte-ordinak jaso nuen orduan.

Zenbat denbora egin zenuen espoxean orduan?

60ko hamarkadan hiru aldiz sartu ninduten preso. Bi urte eta 20.000 pta.-ko isuna jarri zidaten; gero urtebeteko kartzela zigorra kendu egin zidaten, baina isuna

ordindu behar izan nuen. 1964ko azaroaren 28an Donostian atxilotu ninduten, manifestazio baten propaganda banatzeagatik. Hamar bat egunez egon nintzen preso. Bigarrenez, 1965eko apirilaren 14an sartu ninduten eta abuztura bitartean egon nintzen barruan. Hirugarrenean, 1966ko azaroaren 20an sartu nintzen hurrengo urteko apirilera arte.

'Elkarrizketa eta gizarte. Etorkizuneko iloak Europako Batasunean' mintegia egiten ari dira gaur Bilbon, MCC eta Gizarte Ekonomiaren Espainiako Enpresa

Konfederazioak antolatuta. Hantxe da gure elkarrizketatua ere. Aurretik, baina, Oñatiako Unibertsitate Zaharrean dagoen Oñatiako Lege Soziologiaren Nazioarteko

Erakundean hartu gintuen sasoi baten Europako Justizia Tribunalean eta Lan sailburuorde izan zen EHUKO irakasleak. Europaren etorkizunaz aritu gara harekin.

JOXERRA BENGOTXEA | OÑATIKO LEGE SOZIOLOGIAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEKO ZIENTZI ZUZENDARIA

"Europako gizarte eta ekonomian kooperatibek lekua izan behar lukete"

Mario Deogracias

Zer lortu nahi duzue mintegian?

Europako gizarte eta ekonomia batzordean ez ote luketen kooperatibek presentzia izan behar eztabaidatzea. Hau da, elkarrizketa sozial europarrean ekonomia sozialeko enpresek ez ote luketen parte hartu behar plazaratzea. Elkarrizketa soziala gutxieneko akordio batzuk loratzeko bidea da, baina orain arte sindikatu eta enpresen artean egin izan da.

Europeistatzat duzu zeure burua. Europako Konstituzioak zergatik dauzka hain lagun gutxi? Zergatik ez gara europar hiritar sentitzen?

Nire ustez, europarrak sentitzen gara, hori ez da arazo. Hala ere, zaila da jakiten zergatik bozkatu den ezetz eta zergatik baiet. Ez dut uste europar sentimendua baietzailekin edo ezetzarekin lotutik dagoenik. Planteatzen dena da nola harti behar ditugun erabaki berri hauek. Egokia da estatu bakoitzak aukeratutako egunean egitea bozketa ala guztiok batera egin beharko genuke? Horrez gainera, nola onartu edo harti behar da erabaki hori? Hau da, beharrezkoia izango da beti estatu guztiok onartzea ala europar gehiengo garbi bat eskatu behar dugu?

Orduan, konstituzioa bozkatzeko planteamendua ez da zuzena izan? Prozesua beste era baten egin beharko litzateke?

Baliteke, baina horrek ekantriko luke beste era bateko Europa eraikiko genukeela; estatu federatu baten antz handia izango lukeen Europa. Baina estatuek pauso hori ez dute eman nahi izan, eta indefinizio horretan geratu gara: estatuek ez dute galdu nahi subiranotasun formal hori. Saltzen digute Europa badagoela, baina hiritarrok ez dugu sinisten. Hortaz, edo pauso serio horri eusten diogu edo onartzen duten aurrean egingo du aurrea Europak, hau da, abiadura


ezberdineko Europa. Horrenbestez, Europa ausartagoa egin daiteke batzuen artean eta merkatu Europa bat besteen artean; baina hori, jada, badago.

2000. urtean Lisboako gailurrean eredu sozialaren oinarri berriak ezarri eiziren. Zuk horren alde egin izan duzu, baina kritikoa zara orain arte egindakoarekin. Azalegugu zu esan zen gailur hartzan eta zein den egoera orain.

Europa soziala nekez eratuko da, eztabaida ideologiko handiak dakartzalako. Ekonomiarik dinamiko eta lehiakorrena nahi zen Europan, baina ezagutzaren gainean oinarritutakoa. Aldi berean, hazkundea eramangarrria izan dadila nahi da, baina osagai sozialekin. Kalitatezko enplegua eta kohesio soziala zen Lisboan defendatzen zena. Hori litzateke eredu sozial baten hastapena, hazia.

Eta, zertan da gaur egun eredu sozial hori?

Europari ez zaio benetako tresnarik ematen hori gauzatzeko; hortaz, estatuek egin behar dute, eta estatuendako kostu sozial handia denez, ez dute egiten. Formula bila ari dira, Franzian, Alemanian... Agian Suedian asmatu dute *flexicuritate* horrekin. Kalteak minimizatzeko prozesuetan ari dira estatuak,



M.D.

Oñatiako Lege Soziologiaren Nazioarteko Erakundeko Zientzi zuzendaria da Joxerramon Bengoetxea.

eta Lisboakoa 2010erako plana izanik, 2005ean ohartu ziren neurriak ez zirela betetzen ari. Berriztaldeko alarma jo dute eta zerbaite egin beharrean gaude berriro.

Eskualde eta antzekoek parte hartzeko aukera izango balute, egoera aldatu egingo litzateke?

Hemen beste eztabaida handi bat dago: zein da elkartasunaren esparrua? Estatuek interes handia daukate eurak izaten jarraitzeko. Eredua ongizateko estatu kideak izaten jarraitzen du, eta ez ongizateko batasuna

edo ongizateko erregioa. Hortxe dago lehia. Nire ustez, gure erronka da gure elkartasunaren esparrua sortzea eta hortik aurrera elkartasuna adierazi gu hartzen gaituen estatuari eta Europari. Zergatik egozten zaio Euskadiri solidario ez izatea? Hain justu, beren esparrua estatua delako. Hala ere, ez diote inori esaten Espania ez dela solidarioa Letoniarekin, esaterako, han baino hobeto egoteagatik.

Ezkerrak ongizate estatuaren defentsan egindakoa ez dela ego-kiena izan ere esan izan duzu.

Ongizatearen estatuak finantzaz aldetik zulo handiak dituela argi dago. Estabilitatearen eta inflazioaren kontrola lortu nahi badira erreformak egin behar dira, batez ere gastu sozialari begira. Ezkerrak orain arte ikuspegi zuzentzailea izan du, ezberdintasunak zuzentze aldera. Baina diskurso berria zera da: gorde dezagun gastu soziala kasu larrienetarako eta saia gaitezzen ezberdintasunak saihesten: aukearen berdintasuna indartzen. Hauek neurri prebentiboak liratzeke. Baina horrek kutsu indibidualista du, dimentsio soziala falta zaio eta hortxe kokatzen da

ekonomia soziala: kolaborazioa, kooperativismoa, langileak elkarlanean... Hau da, solidaritatearen esparrua taldektik landu behar dela eta ez norbanakoak aldetik.

Zer esan nahi duzu, Debagoienean badaukagula Europa sozialaren arazoa konpontzeko giltza?

Guk daukaguna harribitxi bat da. Bruselatik egiten diren politikak, Lisboara bidean, hemen gera daitezke, zerbaite ikasteko. Lehengo kooperativisten baloreekin asmatu zen hirugarren bidea: ez zuten kuestionatzan merkatuaren logika, egokiutu egiten ziren, baina beste balore batzuk jartzen zituzten.

Baina kooperatiba munduan ere badira ahots kritikoak.

Eta guztiz beharrezkoak dira. Kooperativak ere globalizazioaren merkatuaren egokitzea behar izan dira eta lan horretan baliuteke baloreetan zerbaite galdu izana. Zentzu horretan oso garrantzitsua izan daiteke sindikatuekiko galduztako eztabaidari eustea. Elkartasunaren esparru hori sortu nahi badugu eta inoiz solidaritatearen gunea izan nahi badugu, debate horiek guztiz beharrezkoak dira alde guztien artean.

"Indefinizioan geratu gara: estatuek ez dute galdu nahi subiranotasuna"

"Europa soziala nekez eratuko da, eztabaida ideologiko handiak dakartzalako"

"Eredua ongizateko estatu kideak izaten jarraitzen du, eta ez ongizateko batasuna"

"Solidaritatearen esparrua taldektik landu behar da, eta ez norbanakoak aldetik"

Eskaintza polita egon zen Bergarako zuhaitz azokan

Oñatin, era berean, domekan egin zuten azoka, baina Zuhaitz Eguna oraingo domekan egingo dute Belarren 200 zuhaitz landatuz

Jon Berezibar

Udalak antolatuta, Zuhaitz Eguna ospatzen lehenak bergararrak izan ziren. Alde batetik plazan azoka egin zuten 12 mintegi-etxe-rekin (Euskal Herriko, Errioxatik eta Kataluniako etorritakoak). Jende kopuru polita elkartu zen eguerdi partearen herriko plazan, baina zapatuko zuhaitz eguneko bigarren gunea Gorla aldean egon zen. Bertan, Udalak dituen orube batzuetan pagoak landatu zituzten Bergarako ikastetxeetako haurrek.

GIROA AURKA OÑATIN

Eguraldi eskasagoarekin, eta ondorioz jende mugimendu gutxiagorekin, oñatiarrek domekan egin zuten Zuhaitz Azoka. Txantxikuen kasuan, Natur Eskolak antolatu du Natura Astearren ekintzen barruan. Herriko plazan 12 bat haztegik ipini zituzten postuak, denak Euskal Herriko etorritakoak Castelloko landare-etxe bat salbu. Datorren asteburuan, gainera, Zuhaitz



Zapatu goizean zuhaitzez bete zuten Bergarako herriko plaza.

JOSEKO ARANTZABAL

Eguna ospatuko dute. Domekan izango da hori eta Aloña eta Belar inguruetan 200 zuhaitz landatuko dituzte, haritzak eta lizarrok gehien bat.

Aurretik, aurrerapen moduan, domekan bertan sahies-bide inguruan, Triana eta Bidebarrieta artean, iaz landatutako hagin idorrak berrikin ordezkatu zituzten. Jarduera hauetan guztiek Natur Eskolakoek natura eta ingurumena errespetatu eta zaintzeko mezua zabaldugu gura izan dute bai haurren bai helduen artean ere.

Datuak

- **POSTU KOPURUA:** Sei Oñatin eta hamazapi Bergaran.
- **JATORRIA:** Gipuzkoa, Bizkaia, Castello, Errioxa eta Katalunia.
- **LANDAKETA BERRIAK:** Bergaran Gorla eta Elosu inguruetan pagoak sartu dituzte eta Oñatin Belarren 200 zuhaitz berri landatuko dituzte datorren domekan.

Hiru milioi eta erditik gorako aurrekontua onartu dute Elgetan

EAJ-EAren aldeko botoekin eta Aralar taldeko kontrakoekin onartu zuten egunean

Monika Belastegi

Eguenean onartu zuen Elgetako udalbatzak 2006. urteko aurrekontua. 3.622.799 eurokoa da, eta zatirik handiena inbertsioei zuzendutako da: 2.141.352 euro hain justu.

Iazko aurrekontua (5.441.962 euro) baino txikiagoa da aurten goa. Horren arrazoia da, Patxi Basauri alkatearen esanetan, iaz egindako inbertsio handia, Pagatzako lanak, esaterako -4.063.622 euro bideratu zituzten inbertsioetarako-.

Aurtengo inbertsioaren zatirik handiena hirigintzak eroan du, 1.463.559 euro, hain justu ere. Eta horren barruan partidari handiena, Torrealdeko urbanizazio lanak egiteko izango da: 1.327.934 euro. Horrekin batera, irisgarritasun lanendako 30.993 euro aurreikusi dituzte, eta beste 18.000 Maalako parkea egokitzen.

Beste inbertsio garrantzitsu bat kirolei dagokiena da. Izen ere, 490.000 euro inbertituko ditu Udalak pilotaleku berritzen. Partidari txikiak, berriz, kulturarendako izanda, 31.060 euro, hain zuzen. Besteak beste,

buruhandi berriak egingo dituzte, eta gaztelekurako eta Espainiako altzariak erosiko dituzte esandako kopuru horrekin.

ARALARREN EZEKOA

Aralarrek eezkoa eman zien egunean aurrekontuei, eta partidaz partida kontraproposamen era egin zion udalbatzarean bertan EAJ-EAren aurrekontu proposamenari. Izan ere, Aralarrek uste du "legealdiaren amainera gerturatzen den honean etorkizunera begirako zenbait proiekturen alde egin beharko lukeela Udalak". Hala, hainbat partida aurrekontuan jasotzea proposatu zuen. Besteak beste, Salbador kalea egokitzen 200.000 euroko partida eta Agenda 21erako partida bikoiztea (18.000 euro). Gainera, aurrekontuetan "pisu gutxi" dutela eta derrigorrezko iruditzen zaie euskarazko ekinzei eta jubilatu lokalari dagozkien partidak handitzea.

Horrekin batera salatu dute EAJ-EAk ez duela borondaterik azaldu "gurekin aurrekontuak adosteko, nahiz eta batzarrak eskatu ditugun. Bigarren eskanian jaso genuen erantzuna, eta alkateari esan genionean aurrekontuak adostu nahi genituela, esan zigun itxita zeudela eta gure proposamen batzuk jasota zeudela". Borondate falta horren adibide da, Aralarrekoen iritziz, "aurrekontu osoaren %3 osatzen duten gure hiru proposamen baino ez dituztela kontuan hartu".

Omenaldia egin zioten Askari

Mikel Askasibar Herrerako kartzelan dago, eta hil honetan bete ditu 15 urte espetxeratuta

Jon Berezibar

Hamabost urte kartzelan egin dituela-eta omenaldia egin zioten atzo Bergaran herriko Mikel Askasibar presoari. Familia eta lagunekin batera, presoari berri zein senideei egin gura izan zioten ohore Segi, Etxerat eta Askatasunako kideek plazan bildutako herriarrekin batera. Mikelek berak, omenaldiaren berri izanda, elkartasun hitz batzuk helarazi zizkien gutun bidez hamabost urtean jasotako elkartasun-

na eskertuz. Omenaldiak Pol-pol elkarrean jarraitu zuen askaria-rekin.

STATUS POLITIKOA ESKATUZ

1991. urtean Guardia Zibilak atxilotu zuenetik Espaniako hainbat kartzelatik igaro da Mikel "Aska". Atxilotek bertan tiro bi jaso zituen Askasibarrek eta urtebetetan egin zuen ospitalean, "hilzorian egon zen". Askatasunak ekitaldian salatu zuenez, kartzeletan egindako egonaldieta dagoeneko hiru aldiz jipoitu dute eta hainbat gose greba, itxialdi eta enkartelada egin ditu. Horiek, omenaldian agertu zutenez, preso politikoaren eskubideak eta estatus politikoa aldarrikatu gura izan ditu Askak. Eskaerahonekin bat egin zuten domekako omenaldiaren parte hartutako lagunek ere.



Ekitaldiaren ostean manifestazioa egin zuten herriko kaleetan.

JOSEKO ARANTZABAL

Albiste izango da

ANTZUOLA | 19:00ETAN, OLARAN ETXEAN

Arrola Mendi Elkarteak urteko batzarra egingo du eguztenean

Etzi, eguztena, urteko batzarra egingo du Arrola Mendi Elkarteak. Olaran etxeen egingo dute, 19:00etan, eta gero, 19:30ak aldeera, Jon Beloki mendizalearen ikus-entzunezko emanaldia egingo dute. Batzarrean ofizial egingo dute zuzendaritzar batzorde berria Arrolako kideek; izan ere, dagoeneko badaramatz hila-bebe batzuk jardunean. Arrolako arduradunek herritarrei egin-dako deitik osatu zuten batzorde hori, elkartea desagertzekotan zegoen-eta. Oso erantzun ona jaso zuen deiak, eta, bi urtean batzordea berritu ezinda ibili eta gero, osorik berritzea lortu dute.

EUSKAL HERRIA | JAIAK PAREKIDEAGO EGITEKO

Ospakizun sexisten berri jasotzeko kanpaina abiarazi dute

Bilgune Feministak kanpaina bat jarri du abian, Euskal Herriko auzo, herri eta hirietako jaiak parekideago izan eta elementu sexistak behingoz desager daitezen. Bilgune Feministaren arabera, azken urtean ez da aurrerapauso nabarmenik egin: "EAeko Berdintasun Legea onartu zenetik, presentzia publikoari lotutako azaleko eraginak besterik ez dugu sumatu".

Erakundeei Euskal Herriko jaien inguruko azterketa egin eta horren aurrean neurriak hartzeko eskaria helarazi zieten Bilgune Feministako kideek, baina erantzunik eza ikusirik erabaki dute arazoari heltzea, eta webgunea jarri dute abian gure inguruko jaien berri emateko: jaiparekideak@euskalerria.org.

DEBAGOIENA | EGUNLEAN, 18:30EAN

Euskal presoen "muturreko" egoera salatzeko agerraldia deitu dute

Ibarreko Askatasunak presoen aldeko manifestazio deia egin du. Eguzenerako, hilaren 23rako, egin du deia, eta bi manifestazio eongo dira: Arrasaten eta Bergaran. Biak hala biak 18:30ean abiatuko dira plazatik. Askatasunaren esanetan, "azkenaldian Espainiako eta Frantziako estatuak euskal presoengen eragiten ari diren politika suntsitzalea geroz eta nabarmenagoa da", eta "gure ibarrean horren lekuko ditugu Marixol Iparragirre, Unai Parot, Jon Agirre, Zuhaitz Errasti, Aratz Gomez eta Premin Sanpedro". Askatasunaren esanetan, "oinarrizko bizi baldintzak eta eskubideak zapaltzeaz gain, espetxeen bizi duten egoera are larriagoa bihurtzen diete, muturreko egoeretan egotera behartuz". Hori guztia salatuko dute eguzeneko manifestazioetan.

ARAMAIO | SILVIA HUEGUNEK EMANGO DITU ESOLAK

Elikadura osasuntsua egiteko gomendioak bihar Muru Alden

Bihar, martitzena, elikadura osasuntsua egiteko gomendioen ikastaroa eskainiko die Silvia Huegunek Muru Alde elkartera hurbiltzen diren guztiei. 15:00etan hasi eta 17:00ak arte jardungo du eskolak ematen, eta gura duten guztiak hurbil daitezke, ez dagoelako izena eman beharrik.

Eguenean, otsailak 23, bestalde, bioarkitekturaren gaineke berbaldea egingo du Amaia Agiriano arkitektoak. Material naturalk erabilita etxeak egitea, kutsadurak ez egotea eta beste hainbat gai izango ditu hizpide, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

ESKORIATZA | 17:00ETAN JAIALDIA EGONGO DA PLAZAN

Urdelardero egunarekin hasiko dituzte Inauteriak eguzenean

Tradizioari eutsiz Urdelardero egunarekin hasiko dituzte Inauteriak eskoriatzarrek. Goizean kalejira egingo dute ikastetxetako neska-mutikoek, Inauterien hasiera iragartzeko. 11:30ak aldeera bukatuko dute eta txistorra egongo da hurbiltzen diren guztiek plazan.

Arratsaldean, berriz, umeendako jaialdia egongo da 17:00etan, plazan Azkona taldearekin -pilotalekuaren izango da, eguraldi txarra eginez gero-. Eta jaialdiaren ostean, txokolate beroa ere banatuko diente hurbiltzen diren guztiei -edalontzia norberak eraman behar du-.

Hitzorduak



SUKALDARITZA | Hemengo platerak egiten irakatsiko dute Elgetan, ikastaro baten

Euskal Herriko hainbat plater zelan prestatu ikasteko aukera dago Elgetan. Ikastaroa otsailaren 27tik martxoaren 22ra bitartean emango dute herriko elkarre gastronomiko baten, astelehen eta eguztenetan, 19:00-21:30 ordutegian. Ana Mari Albusu sukaldaria etorriko da hemengo plater horiek irakastera. Oraindik ez dute erabaki zein plater irakatsiko duten; izan ere, irakaslearen arabera izaten da aukeraketa.

Ikastaroa 25 urtetik gorakoei zuzenduta dago, eta gehienez ere 18 lagun hartuko dituzte. Dagoeneko lagun dezentek eman du izena. Horretarako, udaletxera jo behar da. 10 euro da.

ANTZUOLA |

- Adobe Acrobat Reader programa irakatsiko dute

Adobe Acrobat Reader programa irakatsiko dute hilaren 23an, eguna, KZgunean, 18:00-20:00.

ARAMAIO |

- Posta elektronikoa erabiltzen irakatsiko dute

Posta elektronikoa erabiltzen irakatsiko dute gaur, astelehen, KZgunean, 18:00etatik aurrera.

ARETXABAleta |

- Internetez egunkaria irakurtzearen gainekoak

Zure egunkaria irakurri delaiko ikastaroa emango dute hilaren 23an, eguna, KZgunean, 09:00etan.

ARRASATE |

- Hainbat ikastaro emango dituzte KZgunean

Honako ikastaroak emango dituzte KZgunean: Kutxa 1 (hilak 21), Kutxa 2 (hilak 22) eta Outlook programaren gaine-ko (hilak 22).

- Nork bere burua defenditzen ikasteko tailerra dago

Emakumeei zuzendutako nork bere defentsaren gaineko ikastaroa izango da martxoaren 17an (16:00-20:00) eta 18an (10:00-14:00 eta 16:00-20:00). Arrasateko Emakume Txokoan. 12 euro da; 6, ikasle eta langabeenda-ko. Izenematea, 943 79 41 39 tele-

fonoan edo emakumetxoka@gmail.com helbidean.

BERGARA |

- Kultura elkarrekin dirulaguntzak eska ditzakete

Irabazi-asmorik gabeko kultura taldeek dirulaguntzak eska ditzakete martxo hasierara arte. Eskaera-orria Udal Kultura Sailean duzue.

- Bi ikastaro emango dituzte asteon KZgunean

Honako ikastaroak emango dituzte: Asteburu bat Euskal Herrian (hilak 22, 09:00) eta Flashget (hilak 23, 18:00).

- Kinto afaria egingo dute

1943an jaiotakoek

Kinto afaria egingo dute 43an jaiotakoek martxoaren 4an, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Izenemate epea martxoaren 1ean bukatzen da. Interesa duzuendok deitu honakoei: Maribel Zeziaga (943 76 22 90), Arantza Askasibar (943 76 16 13) edo Juan A. Fernandez (943 76 53 22).

- Erretzeari lagatzeko ikastaroa antolatu dute

Erretzeari lagatzeko ikastaroa antolatu du zapzigarren aldz Udaleko Gizarte Departamentuak. Interesa duenak bertan eman behar du izena eta epea zabalik dago. Martxoaren 10ean eta 11n izango da ikastaroa eta 290 euro balio du. Aurreko sei ikastaroetan 99 lagunek hartu zuten parte eta 63k laga zioten erretzeari.

DEBAGOIENA |

- Saharako errefuxiatuendako dirua batzen ari da Nubi

Nubi elkarrekin dei egiten du Saharako errefuxiatuen kampalekuetara bidaltzeko dirua emateko. Izan ere, eurite tropikal batzuek hondamen handia egin dute, eta Nubik kontu bat zabaldu du dirua batzen: 3035 0001 51 0010097799 (Euskadi Kutxa).

ELGETA |

- Soto batera irteera eta egun pasa antolatu dute

Heredad Ugarte delako sotora irteera antolatu du Goibeko elkarrekin zapaturako, hilak 25, eta Guardian bazkaria. Izena emateko, jo Espaloira.

OÑATI |

- Goi mailako hezkuntza zikloen gaineko berbaldia

Batxilergoko ikasleei eta gurasoie zuzenduta, goi mailako hezkuntza zikloen gaineko hitzaldia egingo dute Arizmendi ikastolak eta Mondragon Unibertsitateak etzi, eguztena, ikastolan, 18:30ean.

- Naturaren gaineko hiru hitzaldi emango dituzte

Natur Astearen barnean, honako hitzaldiak izango dira Natur Eskolan: Baso eta zuhaitz zaharren garrantziaz (gaur, astelehen), Korridore naturalak (bihar, martitzena) eta Ugartza: arrano hezurjalea (etzi, eguztena). 19:00etan dira.

Iritziaik



Isilpekoak

943 25 05 02

goinenkaria@goiena.net

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Ibarraiko irteera ezin da konpondu?

Oñatitik iritsi zaigu asteon txistuetako bat. Ibarratik errepidea irteteko bidean dagoen zulotzarraz kexu da gure irakurlea: "Oñatiko Ibarraiko irteeratik Zubillagarantz jo nahi nuen eta izugarrizko sustoa hartu nuen joan zen martitzenean. Ia-ia autoa sartu nuen dagoeneko bide erdia hartzen duen zuloan. Ez da askorik erabiltzen irteera hori, antza denez. Bestela, honezkerro, norbait konturatuta lego ke han dagoen zuloa onartezina dela. Bainan betiko moduan, zerbait larriagoa gertatu arte ez dute ardura dutenek soluziorik jarriko. Aprobetxatuko dut eta alkate berriari lehenengo eskaria bideratuko diot lerro hauetako aprobetxatuz".

• Trenbidearen egoera tamalgarria da

Bergaratik ere kexu da gure irakurle bat. Oraingoan baina, autoen bide batez barik oinezkoen bide batez da kexu: trenbideaz. Diòskunez, "itzelezko zuloa daude trenbidean, lotsagari dagoela esateraino. Jende asko ibiltzen da paseatzeko trenbidean Mekolalde aldera, gehienak hankaren bat bihurritzeko beldurrez bideko zulo mordoa dela eta. Bidegorria egin bitartean, ondo lego ke, behin-behineko soluzioa ematea trenbideari; izan ere, erretiratu asko -eta bestelako herritar asko ere- egunero ibiltzen da trenbidean. Gainera, Udalak bide gorria egiteko proiektua eginda baduen arren, egin arte denboratxoa beharko denez, herritarron onerako, besterik ezean, bota harritxoak trenbideko zuloetan. Ez dago Bergaran paseatzeko, lur lauan oinez ibiltzeko, bestelako leku aproposik, auto barik eta naturatik gertu. Beraz, udal ordezkariei deia egin nahi nieke eta sinistru ezean, egin dezatela paseotxoa trenbidean zehar eta ohar daitezela zertaz ari naizen".

Halaxe erantzun digute

Bartzelonako kongresuan aurkeztu dituzten era berriko eskuko telefonoek zer ekarriko diote erabiltzaileari?



EVA SUDUPE |
LKS INGENIARITZA

Erabiltzaileak erosotasun handiagoa izango du edozein lekutatik baliabideak eskuratzeko. Bartzelonan aisiari eman diote garrantzi handiagoa; nire ustez horiek beste eremu batzuetara erama-tea garrantzitsuagoa da, adibidez GPS edo bideo-konferentzia zerbitzuak eskurago izatea.



ARKAITZ ZUBIAGA |
MUTILMEDIA.COM

Poltsikoan ordenagailu bat eramatzen bukatuko dugu, hori da behintzat eskuko telefonoek azkenaldian erakusten duten joera. Banda zabala, bideo-konferentzia, fitxategiak bidaltzea, argazki kamera, mp3 irakurgailua... Gero eta txikiagoa da PDA baten eta eskuko baten arteko aldea.



MAIDER ARREGI |
GOIENANET

Eskuko telefonoen iraultza suposatzen du. Telefono honekin Interneten nabigatu ahalko da. ADSL-aren abiadura bera izango du eta Interneten konektatuta egonda telefonoz hitz egiteko aukera izango dugu. Aurrerapen teknologiko handia da. Baliteke ordenagailuari merkatua kentzea.



ELI GARRO |
EUSKALTEL-EKO KOMERTZIALA

Baliteke zenbait lanetarako audio-erabiliko dutenak egotea, baina ohiko erabiltzaileek ez dute horien alde egingo. Gainera, eta hasieran telefonoekin gertatzen moduan, garestiak izango dira zerbitzu horiek. Telefonia konpainiek egin beharko dute apustua lehenengo.

Sarean harrapatuta

Ernalkuntza lagunduaren lege proiektua

Ernalkuntza lagunduaren lege proiektua onartu du Espainiako Kongresuak. Lege horren arabera, bikoteak enbrioia aukeratu ahal izango du laborategian lortutako enbrioien artean, gaixotasunen bat duen

seme-alabaren bati laguntzeko bida, betiere enbrioia bateragarria denean. Kongresuak onartu ostean, Senatuaren onesprena jaso beharko du indarrean jartzeko. [Goiena.net](http://goiena.net)-en galdu dute gaiaren gainean.

**OSASUNA HOBETZEKO
IZAN DADILA**

Niri ondo iruditzen zait. Horrela bizitzak salbatu daitezke edota hainbat gaixotasuni aurre egiten lagundu. Hori bai, beti ere osasun helburuetarako izan dadila, ez beste helburu batzuetarako.

Miren / www.goiena.net

**NATURAREN AURKA
JOATEA DA**

Nik uste dut mugak gainditzea dela. Zer pasatuko da denok gure umeak kartara aukeratzen hasten bagara? Uste dut naturaren aurka joatea dela. Bizitza gogorra da, baina datorren moduan harta behar dira gauzak, bai txarrak eta baita onak ere.

Jose / www.goiena.net

**MUTURREKO EGOERETAN
EGITEKO ONDO DAGO**

Ez zait gaizki iruditzen legea, baina ez litzaidake gustatuko gizakiaren etikatik harantzagora joatea. Ondo dago medikuntzak eta zientziak aurrera egitea, baina beti ere etika baten barruan. Ezin da edozein gauza egin aurrerapenagatik. Baina, bizitzak salbatzen baditu procedura honek eta muturreko egoeretan bakanrik egin baldin badaiteke, ondo iruditzen zait.

Mario / www.goiena.net

GURASOEN EGOERAN

JARRITA ADOS NAGO


Oso zaila da galdera horri erantzutea. Nik uste dut galderari erantzuteko semea edo alaba gai-xo duen guraso baten egoeran jarri behar dela eta gurasoaren egoera horretan pentsatuta ados nago legearekin, duda barik. Hala ere, ezjakintasunean eta urrunetik, beldurra ematen didate, etorkizunean medikuntza aurrerapenek har dezaketen norabideak ikusita.

G.V. / www.goiena.net

ZIENTZIARI EZIN ZAIO

www.goiena.net

Ondo iruditzen zaizu enbrioia aukeratzea seme-alabak sendatzeko?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

**EZ DU GIZAKIAREN
GAINBEHERA EKARRIKO**

Nik uste batzuetan oztopoak jarri behar zaizkiola zientziari ere. Hala ere, dena ez da zuria edo beltza. Klonazioa debekatzea ez dut uste zientziaren aurka joatea denik eta, bestalde, orain onartu duten lege honek ez dut uste gizakiaren gainbehera ekarriko duenik.

Oies / www.goiena.net

**ZIENTZIAN GASTATU
ARMETAN BEHARREAN**

Zientziari oztopoak jarri? Zer-gatik? Nik zientziara bideratuko nuke armetan gastatzen duten diru guztia, ea orain hiltzen duten gaixotasun asko sendatzeko biderik aurkitzen duten.

Zaloa / www.goiena.net

Egunkarietako harribitxiak

OTHMAR GOMEZ KORTAZAR

Bilbotarra da, eta duela bost urte musulman egin zen. Assabil, Euskal Herriko elkartea soziokultural islamiarreko idatzaria da. Atzo Garan egindako elkarriketan zioen, elkartearren helburu estrategiko artean dagoela Bilbon egoitza islamiar erraldoia egitea.

'Gara'
2006-02-19



EPIZENTROA EUSKADIN DUTEN SISMOAK


Institutu geografiko nazionalak 61 lurrikara zenbatu ditu EAEn azkeneko 100 urteetan: 31, Gipuzkoan; 22, Araban eta 8, Bizkaian (guztiak intentsitate txikikoak, ez dute 3 magnitudua gainditu). Epealdit horretan ez da heriotzarik izan lurrikaron ondorioz, baina nagusienek gogoratzen dute pitzadurak. Gipuzkoari dagokionez, Donostia eta Goierri izan dira

halako gertakarietarako joera handiena izan duten tokiak. Donostia, esaterako, zapizaldiz azaldu da datu-base sismikoan azkeneko 100 urteetan. Debagoienari dagokionez, Arrasaten ere gertatu zen halako lurrikara txiki bat, 1996an. Ehun urteotako lehenengo lurrikara 1928an izan zen, Donostian; azkena, Andoainen izan zen, iaz.

'Noticias de Gipuzkoa'
2006-02-19



Tira, tira...



Peli 'Berria' | 2006-II-19

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

18/98 AUZIA

"Zapaterok ulertu behar du makrosuma-rioak desagertu egin behar duela. Bakea lortzeko prozesua abiatzeko itxaropenaz hitz egiten du, eta itxaropena elikatu behar dela dio, baina itxaropenari lekua egiteko eta hura elikatzeko, Madrildik datozen kriminalizazio saio hauek guztiek bertan behera geratu behar dute".

Rafa Diez
2006-02-19

'Gara'

18/98 AUZIA

"Audientzia Nazionala da Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideak ukatzeko tribunal berezi eta politikoa. Neurri erre-presiboa ez dute laguntzen, baina ororen gainetik egon behar luke Euskal Herriko eragileen ekimen eta borondate politikoa. EAJ etortzea, oso baikorra da, adibidez. Espe-ro dugu guztiek ausartagoak izatea".

Juan Mari Olano
2006-02-19

'El Diario Vasco'

18/98 AUZIA

"Euskal Herrian hastera doan bake proze-suan oztopo handia da 18/98 auzia; hori dela eta, berandu baino lehen bertan behera geratu behar duela uste dugu. Auzipetu guztiei gure babesea adierazi nahi diegu. Horregatik etorri gara Bilboko manifestaziora. Normalizazio politikoa eta bakea lortzeko oztopo diren proceduren kontra azalduko gara".

Unai Ziarreta
2006-02-19

'Noticias de Gipuzkoa'

18/98 AUZIA

"EAJk argi ikusi zuen hasieratik 18/98 auzia interes politiko ugari ezkutatzen zituen eki-men juridikoa zela. Ez du ez hanka ez bururi; bertan behera geratu behar du. Areago, normalizazio politikoa lortzeko beharrakoa da bertan behera geratzea. Bakea lortzeko ETAk armak laga behar ditu, baina normalizazioa lortu behar da aurrena".

Iñigo Urkullu
2006-02-19

KIROLA

- Mugarri Alkesak 88-92 irabazi du Consmetal liderraren kantxan | 15
- Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak taldeen aurkezpena egin du | 19



Abel Barriola
pilotariarekin jardun
dugu bere itzulera
eta etorkizunaren
inguruan | 19

PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEAK

ALOÑA MENDI

5-1

ALLERRU

Aloña Mendi | Elgarresta, Elgarresta, Igartua, Idigoras, Garai (Lopez, 71. min.), Arregi, Barrena (Losada, 75. min.), Astola, Sanchez, Bazan (Maiztegi, 72. min.) eta Astigarraga (Arregi II.a, 69. min.).

Allerru | Gerardo, Urra (Oscar, 76. min.), Martiarena, Marandiaran, Unanue, Dani (Julen, 69. min.), Agirre, Ibai (Ibai, 69. min.), Saizar (Gajate, 75. min.), Unai eta Mikel (Azkona, 69. min.).

Golak: | 1-0 Idigoras (57. min.), 2-0 Elgarresta (59. min.), 3-0 Idigoras (62. min.), 3-1 Agirre (64. min.), 4-1 Idigoras (70. min.) eta 5-1 Idigoras (78. min.).

Epailea | Haro jauna. Ondo ibili zen. 4 txartel hori atera zizkien Aloñako jokalariei eta 2 Allerrukoei.

Bestelakoak | Jende gutxi hurbildu zen Azkoagainera partidua ikustera.

Bikain

Roberto Idigoras

Oñatiarrak 4 gol sartu zituen atzokoan. Partidu bikaina egin zuen Robertok, aurrealdeari bizitasuna emanet. Anaiaren botekin aritzeak zortea ekarri zion.

Kaskar

Aurkaria

Allerruk ezer gutxi egin zuen Oñatin. la partidu guztian etxeko mende egon ziren lezoarrak. Azkoagainera hurbildu zirenek talde bakarra ikusi zuten zelaian. Hala ere, gola egin zuten.

Esandakoak

"Lehen zatian partidua

erabakitzeko aukerak izan ditugu. Behin lehen gola eginda, samur irabazi dugu".

AITOR ORUETA |
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Inoiz ez ditut partidu berean lau gol sartu. Jokalari gazteak gara, baina urte asko daramatzagu elkarrekin".

ROBERTO IDIGORAS |
ALOÑAKO JOKALARIA



Oñatiarrak fisikoki oso ondo daude; partidu amaierara intentsitate handiarekin iristen dira.

ARTXIBOA

FUTBOLA | GOL FESTA AZKOAGAINEN

Behin lehen gola eginda, guztiak jarraian etorri ziren

Aloñak ez zuen aurkaririk izan atzokoan. Lehenengo zatian partidua erabakita uzteko aukerak izan arren, 2. zatian erabaki zuen

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendik erraz irabazi zuen atzo Allerruren aurkako neurketa. Lehenengo gola egitea koste egin zitzaien arren oñatiarrei, behin atea zulatuta, beste gol guztiak jarraian etorri ziren.

Partiduko protagonista, dudarik gabe, Roberto Idigoras izan zen. Etxeko jokalariak lau gol egin zituen eta Elgarrestak sartutakoan ere pasea berea izan zen.

Aloñak lehenengo minututik hartu zuen partiduaren jabetza.

Ezker hegaletik jokaldi politak egin zitzuten oñatiarrek; Unai Arregi eta Roberto oso ondo konpondu ziren.

10. minutuan, Aloñako atezainak luze atera zuen eta Robertok, buruz, atezainaren eskuetara bota zuen baloia. Hurrengo jokaldian, Jokinek, area kanpotik jaurti zuen gogor, baina baloiak zutoina jo zuen.

25. minutuan, Allerruko atzelariek huts egin eta baloia Henryren oinetan utzi zuten. Jokalari boliviarrak, ordea, ez zuen asma-

tu jaurtiketa egiterakoan eta baloia kanpora bota zuen.

Aukera hauekin guztiekin Aloñak atsedenera abantailarekin joateko modua zuen arren, husnako berdinaketa ikusi zuten

Azkoagainera hurbildu ziren zaleek.

2. ZATIAN GOLAK

Partiduko lehen gola 57. minutuan etorri zen. Unai Arregik, ezkerretik erdiratu zuen eta Robertok ondo errematatu zuen. Minutu batera, bigarrena iritsi zen. Robertok erdiratu eta Xabier Elgarrestak sartu zuen. Hirugarrrena, atezañaren huts baten ondorioa izan zen.

Allerruk, area barruan izandako falta ez zuzen baten bidez, 3-lekoa egin zuen Arregiren bitartez.

Partidua borobiltzeko, oñatiarrek beste bi gol egin zitzuten. Aloñak dagoeneko 52 puntu ditu. Datorren astean derbi bizia izango dugu Aloña eta Mondraren artean, Atxabalpe zelaian.

Atsedenera abantailarekin joateko aukera izan zuten oñatiarrek

Datorren astean derbia Mondra eta Aloñaren artean; bi taldeak egoera oso onean daude

PREFERENTE MAILA



Idiazabal ez zen aurkari izan Arrasatekoendako

IDIAZABAL
0-2
MONDRA

A.G.

Partidu serioa egin zuen Arrasateko taldeak zapatuan Idiazabalen aurka. Horrela, garaipenaren hiru puntuak etxera ekarri zituzten. Oso gainetik ibili zen Mondra.

BI GOL AURKARI

Agian denboraldiko partidurik serioena egin zuen Mondrak zapatuan. Zelaira irten eta gutxira egin zuten lehenengo gola Arrasatekoek. Rubenek egin zuen 8. minutuan.

Atsedenaren aurretik beste bost gol aukera izan zituzten Gordobil mutilek, baina ez zuten jaurtiketean zorterik izan. Bigarren zatian gogor zelairatu zen etxeko taldea baina gutxitau iritsi ziren Mondraren areara. Arrasatekoek lekua berriz hartu zutenean iritsi zen Zubikairen gola.

Pasaia baino hobeto aritu zen UDA, baina maldan gora jarri zitzaien partidua bigarren zatian.

Bat gutxiagorekin jokatu zuten bigarren zati osoa

PASAIA	2-1
UDA	

A.G.

Partidu zaila izan zuten Felix Recioren mutilek Pasaian. Ondo jokatu zuten, baina epailearen erabaki aldrebesek eta Jon Iregiren lesio larriak partidua baldintzatu zuten hasieratik beretik.

Zelaira irten eta gutxira apurtu zuen peronea Iregik. Ebakuntza egin zioten domekan baina luzerako du UDAko defentsak.

PASAIAK BI GOL JARRAIAN

UDAkoak aurreratu ziren lehenengo markagailuan. Iker Oruetak egin zuen gola 25. minutuan. Gutxi iraun zuen Aretxabaletakoekin pozak. Hamar minutu beranduago iritsi ziren etxeko taldearen bi gol ia jarraian. Pasaitarrek erabakita utzi zuten norgiehagoka.

Nahiz eta benetan ondo jokatu, Aretxabaletakoek ezin izan zuten markagailua txukundu. Gol aukera bat baino gehiago sortu zituzten baina ez zuten zortea alde izan. Epailea kontra ego-teak, gainera, ez zuen batere lagundu. “Aurrelik ezagutzen dugun epailea da”, aitorlari digu taldeko delegatu Javier Etxeberria *Fito* delegatua ere kalera bidali zuen.

elkar ikusiko genuela mehatxatu gintuen eta Federaziora jo genuen epaile hori gure partiduetara ez bidaltzeko eskatuz”.

GORRIA ARMENDARIZI

Lehenengo Unai Armendariz jokalaria kaleratu zuen epaileak txartel gorria erakutsita. Aretxabaletako jokalariak baloia jaurti zion Pasaia jokalari bati. Lehenengo zatia amaitu baino lehenago gertatu zen, beraz, jokalari bat gutxiagorekin jokatu zuen UDAk bigarren zati osoa.

Ez zen UDAri epaileak adierazi zion kanporatze bakarra. Hartutako zenbait erabakiren gainean kexa agertzeagatik Javier Etxeberria *Fito* delegatua ere kalera bidali zuen.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAIZZAK	SAILKAPENA								
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK	
Real Union-Touring	1-2	1. Aloña Mendi	52	25	16	5	4	53	30
Pasaia-UDA	2-1	2. Ordizia	50	24	16	6	2	46	24
Orioko-Zestoa	1-2	3. Real Union	48	25	15	7	3	50	29
Aloña Mendi-Allerru	5-1	4. Zarautz	45	25	13	6	6	51	28
Idiazabal-Mondra	0-2	5. UDA	45	25	13	6	6	46	24
Beti Gazte-Berio	0-1	6. Pasaia	43	25	11	4	4	53	36
Mutriku-Irun 1902	1-5	7. Trintxerpe	43	24	13	7	10	43	32
Ordizia-Anaitasuna	4-2	8. Touring	38	25	11	9	5	36	33
Zarautz-Hondarribia	5-1	9. Mondra	37	24	11	9	4	38	27
Hernani-Trintxerpe	2-1	10. Mutriku	37	25	11	10	4	34	36
		11. Hernani	33	25	9	10	6	35	37
		12. Hondarribia	32	25	9	11	5	30	43
		13. Berio	31	25	8	10	7	35	37
		14. Zestoa	29	25	7	10	8	29	35
		15. Anaitasuna	28	24	8	12	4	28	36
		16. Idiazabal	27	25	6	10	9	26	40
		17. Irun 1902	21	25	5	14	6	32	51
		18. Beti Gaze	17	25	5	14	8	24	43
		19. Orioko	17	25	3	14	8	28	61
		20. Allerru	14	25	3	17	5	20	55



David Canasek egin zuen Bergararen lehen gola.

BERGARA	3-0
AURRERA ONDARROA	

Bergara | Sesma, Agirrebal, Eldin (Araña, 51. min.), Aratzkongara (Urteaga, 79. min.), Nafarrete, A. Agirre, U. Agirre, Rodriguez, Casinillas (De Vega, 64. min.), Canas eta Crespo (Gallastegi, 79. min.).

Aurrera Ondarroa | Carmona, Burgos I. (Reinado, 81. min.), Arantzamendi (Lopez, 74. min.), Louro, Badiola, Duarte, Batista, Amaibietza, Ibaibarriaga, Burgos II. eta Lasarte.

Golak: 1-0, Canas. 2-0, Gonzalez. 3-0, Arana.

Larraitz Zeberio

Erraz asko irabazi zioten zapatuan Josu Zubiaren mutilek Ondarroako Aurrera taldeari. Sailkapeneko azkenaurreko postuan dagoen kostaldeko taldea ez zen arerio izan Bergarakoendako. Preferente mailara igotzea helburua duen taldeak, beraz, beste urrats txiki bat eman du bide onean.

LEHEN GOLAK LUZE JO ZUEN

Nahiz eta Bergarak sortu gol aukera garbienak, tantorik gabe amaitu zen norgiehagokaren lehen zatia. Atsedenaldiaren ostean,

ordea, egindako lana emaitzak ematen hasi zen.

54. minutuan egin zuen Canasek lehen gola Imanolen erdiratze bikainari esker. Bigarren tantoa ezker hegaletik egin zuen Asier Gonzalezek, 76. minutuan.

Ondarroarrak, bitartean, Bergarakoentzat areara hurbiltzen saiatu ziren, baina birritan besterik ez zuten aterta jaurtitzea lortu eta huts egin zuten bietan.

Etxeko taldearen hirugarren eta azken gola amaierarako minuto bakarra falta zenean iritsi zen. Unai Aranak egin zuen David Canasek baloia aukera jarrita,

- LEHENENGOKO TERRITORIALA

Bergarako taldeak bigarren garaipena lortu du jarraian

*Atsedenaren
ostean sendotu
zuen aldeko
markagailua
Muniategiren
taldeak*

BERGARA
29-26
USURBIL

Bergara | Kapelastegi, Uribe (2), Larrañaga (4), Agirre (2), Sanchez (4), Otxoa, Pozo, N. Najera (2), I. Najera, Zabaleta (7), Lenisoro (2), Zarragita eta Plazaola (6).

Usurbil | Aranburu, Urkia (3), Sarasola (5), Castro (5), Egues, Hernandez (2), Begiristain, Castro (1), Bengoetxea (6), Ponomarruda (2), Zugasti (1) eta Aguado (1).

Markagailua atsedenean: 13-10.



JOSETXO ARANTZABAL

Josu Zabaleta eta Mikel Larrañaga ondo aritu ziren, 7 eta 4 gol egin zituzten, hurrenez hurren.

Larraitz Zeberio

Usurbilgo taldearen bisita izan zuen zapatauan Lehenengo Territorialean dabilen Bergarak. Ondo aritu ziren etxeako lehenengozatian, baina atsedenaren ostean lortu zuten markagailuan aldea sendotzea. Puntu baliotsuak esku-ratu ditu taldeak txapelketa amaierara begira.

PARTIDU PAREKATUA

Maila berdintsuaren aritu ziren bi taldeak. Lehenengo zatia parekatua izan zen, nahiz eta Bergarak aurrea hartu. Hiru goleko aldea izan zen handiena markagailuan.

Usurbilgoak ere garaipeneren puntuen bila eterri ziren Bergarako. Atsedeneko markagailua ikusita (13-10) urduritzen hasi

ziren eta epaileak bi txartel hori atera zizkion zarataka hasi zen entrenatzaileari.

BERGARA GAINETIK

Batez ere bigarren zatian jokatu zuten ondo etxeakoek. Talde jokoa egin zuten erasoan eta ondo itxi zituzten zuloak defentsan. Aipatzekoak izan zen, aldi berean, Kapelastegi atezainaren lan ona.

Usurbilgoek, gainera, hamar minutu jokatu zituzten jokalari bat gutxiagorekin. Hauetatik lau bi jokalari gutxiagorekin.

Horrela lortu zuten Bergarakoek markagailuko aldea zabaltzea. Sei puntuko tarteak izatera iritsi ziren baina ezin izan zioten marka honi amaierara arte eutsi. Garaipen honekin sailkapeneko erdialdean jarraitzen dute.

- BIGARREN TERRITORIALA

Igoera fasetik postu bakarrera

ARRASATE ESKU BALOI
30-23
BKL CAF

A.G.

Zazpi goleko aldea atera zion zapatauan Arrasateko taldeak Tolosakoari. Ez zen partidu gogorra izan Beñardoren mutlendako, nahiz eta parekatua izan norgehiagokaren lehenengoko zatia.

Tolosarrak jarri ziren aurretik hasieran eta hiru goleko errenta zabaldu zuten. Laster lortu zuten, ordea, etxeakoek markagailua berdintzea, baita Tolosakoari aurrea hartzea ere.

Bi goleko aldea zabaldu zuten Arrasate Esku Baloi taldekoek eta atsedenaren aurreko hamar minutuetan errenta bost tantoa zabaldu zuten. Abantaila horrekin iritsi ziren atsedenera.

BIGARREN ZATIAN GEHIAGO

Bigarren zatian bost goleko alde hori mantentzea lortu zuten. Azken unean alde hori zazpira zabaldu zuten Arrasatekoek.



JOSETXO ARANTZABAL

Taldea lan ona egiten ari da denboraldi honetan. Hirugarren sailkatuta dago eta partidu bakarra gelditzen zaio txapelketa erre-gularra amaitzeke. Bi lehenengo taldeak sartuko dira igoera fasean. Oraindik badute aukerarik, beraz, Arrasatekoek.

- LEHENENGOKO TERRITORIALA

**Ford Mugarrik
berdindu egin du
Urolaren aurka**

UROLA
27-27
FORD MUGARI

A.G.

28-28na berdindu zuten lehenengo itzulian lehenengo postuagatik lehian dauden bi taldeak, eta orain, bigarren itzuliko neurketan, 27na berdindu dute. Epailearen lanak zerikusi handia izan zuen emaitzan. Gogor hasi ziren Zumarragakoak, baina bigarren zatian aurretik jartza lortu zuten Arrasatekoek. Nestor, Oier eta Valle bereziki ondo aritu ziren. Azken lau minutuak, baina, hiru jokalari gutxiagorekin jokatu zituzten Arrasatekoek eta berdinetarekin konformatu behar izan zuten.

- LEHENENGOKO TERRITORIALA

**28-28 berdindu
zuen Aloñak
Leitzaranen**

A.G.

Aloñak partidu eskasa jokatu zuen Leitzaranen aurka atzo. Atsedenera 14-17 aurretik iritsi ziren arren, azkenean ezin izan zuten emaitza mantendu. 2. zatiako 10. minutuan, Aitor Garcia min hartuta jokoa utzi egin zuen.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Barakaldo-Verkol Aloña 27-25

LEHENENGOKO TERRITORIALA

Bergara-Usurbil	29-26
Leitzaran-Arrikutz Oñatiako Kobak	28-28
Urola Agip-Ford Mugari	27-27

BIGARREN TERRITORIALA

Arrasate Esku Baloi-BKL CAF	30-23
-----------------------------	-------

GAZTE MUTILAK

Aloña Mendi-Gatz Museoa Jakion	22-38
Bergara-Urola	23-14

GAZTE NESKAK

Arrasate-Cometel Elgoibar	03-35
La Salle Legazpi-Verkol Aloña	15-23
Ereintza Aguaplast-Bergara	atzeratua

KADETE MUTILAK

Grosek-Gatz Museo Jakion	38-17
--------------------------	-------

KADETE NESKAK

Verkol Aloña-Kukullaga	10-21
------------------------	-------

- NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatzak azken postua utzi nahi du

Eskoriatzako neskek ligari neurria hartu diotela dirudi. Zapatuan, etxekeoen babesarekin, irabazi egin zuten. Dagoeneko 23 puntu dituzte

ESKORIATZA
51-47
FONSECA

Eskoriatza | Serrano (2), Gomez (2), Caceres (3), Calderon (6), Balzategi (2), Usabiaga (16), Soriano (2), Exposito (13), Etxeberria (1), Agirrezaleta (4).

Fonsca | De Abajo (3), Barbarin (8), Mendiari (4), Pascal (7), Lekunberri (5), Sarriegi (1), Lusarreta (1), Ustarroz (1), Garcia (2), Vela (12), Monforte eta Urdiales.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdenean 5-9. Bigarren laurdenean 22-16. Hirugarren laurdenean 39-36. Laugarren laurdenean 51-47.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzako neskek ligako hirugarren garaipena eskuratu zuten zapatuan Fonsecaren aurka. Eskoriatzakoek beharrezko bi puntu eskuratu zituzten; izan ere, Fonseca puntu bat aurretik besterik ez zen sailkapenean. Orain 23 puntutara berdinduta geratu dira bi taldeak. Hala ere,

Eskoriatzak ez du azkeneko postua utzi, tantoen batez bestekoa dela-eta.

JOKOARI DAGOKIONEZ PARTIDU KAXKARRA

Partidua nahiko motel hasi zuten etxekeok. Erasoan indarra falta izan zuten, eta hori dela eta, lehenengo laurdenean 5 puntu besterik ez zituzten egin. Partidua betikoa bidea hartuko zuela ematen zuen.

Bigarren laurdenean, Eskoriatzakoak indarberrituta ateraziren. Joko bizia egin zuten; defentsan errebotea asko hartuz eta era-sora bizkor atereaz. Ixonek tau-la azpian eginko lana aipatzekoak izan zen. Hala ere, bizitasun horrek askotan baloia galtzea eragin zion etxeko taldeari. Arin-egi ibili ziren eta baloi luzeak jauntitzean, hauetariko asko galdu egin zituzten.

Hirugarren laurdenean, Fonsecak defentsa asko aurreratu zuen; ia kantxa erdiraino. Horrek emaitza ona eman zien aurkarie, batez ere baloiak lapurtzerako orduan. Etxekoek defentsan arazo gehiago izan zuten; zulo asko



JOSEKO ARANTZABAL

Eskoriatzak etxekeoen aurrean bigarren garaipena lortu zuen.

utzi zituzten eta errebotea har-tzeraoan gaizki ibili ziren.

Hirugarren laurdeneko par-tziala 17-17 izan zen.

SASKIRATZE HIRUKOITZAK

Azken laurdenean, eskoriatzako neskek galdua ibili ziren. Jokoan beherakada izan zuten eta, ondorioz, aurkariek markagailuan aurretik jartza lortu zuten.

Markagailuari buelta emateko, Yaizak sartutako jaurtiketa hirukoitzak beharrezkoak izan ziren. Saskiratze hauei esker, etxeko taldeak markagailuan berriro ere aurrean jartzea lortu zuen, garaipena eskuratz.

Azken minutuetan, urduri-tasunagatik, etxeko jokalariei falta teknikoak adierazi zizki-en epaileak. Hala ere, emaitzari eus-tea lortu zuten Eskoriatzakoek.

- SENIOR MUTILAK

Bergarak erasoan gogor jokatu zuen

CANDY BERGARA
67-56
IRUN BASKET

Arantzazu Ezkibel

Candy Bergarak sailkapenean 3. postuan dagoen Irun Basketi 67-56 irabazi zion zapatua ilun-tzean. Bergarakoek partidu serioa jokatu zuten Labega-raieta kirolegian; aurkariari beldurrik gabe aurre eginez.

Horrela, lehen laurdenean 16-14 aurreratu ziren etxekeoak.

Partiduko lehenengo zatia ona izan zen. Etxekoek banaka-ko defentsa gogorra egin zuten aurkariari zulorik utzi gabe. Hala ere, joko gogorraren ondorioz, talde mahoneroak falta asko egin zituzten.

ERRITMOA MOTELDU

Bigarren zatian, Bergarako ia jokalari guztiek lau falta zituzten; ondorioz, jokoaren inten-sitatea jaitsi egin zen.

Hala ere, aldeari eustea lor-tu zuten etxekeok. Erañak 21 tan-to eta Moraisek 15 egin zituzten.



Falten ondorioz, Bergarak erritmoa moteldu behar izan zuen.

- LEHENENGKO MAILA

Liderraren kantxan irabazi egin dute Ford Mugarrakoek

CONSMETAL
88-92
MUGARRI ALKESA

A.G.

Zurututzaren mutilek marka han-dia egin dute asteburuan. Liderra den eta etxearen bi urte galdu gabe zeramatzen Consmetal talde nafa-rra mendean hartu dute zapatuan.

Ez zen partidu erraza izan. Entrenatzalearen erabakiz, gai-nera, taldeko bost jokalarik egin zuten partidu ia guztia. Alartzia, Kintanak eta Gamarra ez zuten atsedenik izan; Mallabiabarrenak segundo gutxi batzuk; eta lesio batetik osatu berria den Iñigo Bia-niek, berriz, minutu pare bat bes-terik ez.

AZKEN TXANPA BIKAINA

Neurketa oso berdinak izan zen. Markagailuko tarterik handiena bost puntukoa izan zen. Atsedenean atzetzik ziren Arrasatekoak (49-44), baina azken minutuetako jaurtiketa libreak eta defentsan egindako lan ona erabakigarriak izan ziren azken emaitzan. Alar-tziak sei puntu egin zituen jarraian jaurtiketa libreetan, eta horrela aurreratu ziren markagailuan.

Ford Mugarrak, orain, hiru partidu jokatuko ditu etxean jarraian. Datorren asteburuan bi.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGKO MAILA
Consmetal-Mugarrir Alkesa 88-92

NESKEN BIGARREN MAILA
Eskoriatza-Fonsca 51-47

SENIOR MUTILAK
Oiarso-Aloña Mendi 65-101
Candy-Irun Basket 67-56

SENIOR NESKAK
Lasarte Oria-Aloña Mendi 48-37

GAZTE MUTILAK
Loiola-Araneta 78-46
Aloña Mendi-Hernani Atletico 17-51
Mugarrir Alkesa-Goierri 75-46

GAZTE NESKAK
Aloña Mendi 41-17
Aldapeta-Eskoriatza 94-23

KADETE MUTILAK
Mugarrir Alkesa-Zarautz 64-45
Goierri-Aloña Mendi 129-29

KADETE NESKAK
Salletarrak-Eskoriatza 41-17
Bergara-Berritek 81-20

Eskola kirola

OÑATI

“Etorkizunean kirolari ona izateko asko entrenatu beharra dago”

Zapatuan, goizean goiz,
Zubikoa kirolegian zeuden
gaztetxoak partidurako prest

Oñatin, neskak eta
mutilak bananduta aritu
ziren eskubaloian jokatzen

Gaztetxoek, oraingoz, kirolari
famatua izatea baino ondo
pasatzea dute helburu

Arantzazu Ezkibel

Zapatuan Oñatiko kirolegian izan ginen gaztetxoek eskubaloian nola jokatzen duten ikus-ten. Goizean goiz iritsi ziren Zubikoara, ohetik jaiki berri, kirola egiteko prest. Hala eta guztiz ere, gazte hauentzat, partiduak jokatzea kirola egitea bai-ano lagunartean ondo pasatzeko aukera paregabea da.

Guztiak pozik zeuden esku-
baloiaren jokatzen; galdu edo ira-
bazi, ez zuen axola. Ondo pasa-
tzea eta gorputza mugitzea zen
helburua.

LAGUNARTEKO GIROA

Gazte hauek kirolari famatu-en kamisetak zituztenez soinean, ea eurak ere etorkizunean kiro-
lari izan nahi duten galde-tu genien. Gehienek baietz esan zuten; futboliariak izan nahi dute-
la. “Bai, niri Nihat bezalako-ia iza-tea gustatuko litzaidake”, esan zuen mutiko batek. Bazegoen saskibaloian aritzea gustatuko litzaiokeenik, eta baita Fernan-
do Alonso-ren bidea jarraitu nahi duenik ere.

Baina guztiak argi zuten kiro-
la egitearen helburua ondo pasa-
tzea dela. “Kirolaria izateko asko
entrenatu behar da eta gu, oraingoz,
lagunartean bakarrik aritzen
gara”. Nork daki, agian, etorki-
zunean kirolari profesional iza-
tera iritsiko dira.



ARANTZAZU EZKIBEL

Pagoa. Ane, Nerea U., Nerea E., Ainhoa B., Maddi eta Ainhoa A. dira Pagoa taldea osatzen duten neskak.



ARANTZAZU EZKIBEL

Udala. Gorka, Aitor, Josu, Aitor, Cristian, Julen, Iñigo, Mikel eta Martxel dira taldekideak.



ARANTZAZU EZKIBEL

Ametza. Maddi, Nerea, Jone, Julieta, Ana, Olatz, Miren eta Ainhoa osatzen dute Ametza taldea.



ARANTZAZU EZKIBEL

Katabera. Julen U., Oier, Iñigo, Julen U., Iñaki, Haritz, Unai eta Mike-
lek osatzen dute Katabera taldea.

• GAZTETXOEK KIROLARI IZAN NAHI DUTE?



GORKA ETA MARTXEL | UDALA

“Guri autoekin ibiltzea gustatuko litzaioguke, Fernando Alonso bezala. Udan, ahal dugune-an, kar-etan ibiltzera joaten gara. Baina hori ez da nahikoa, gehiago entrenatu beharra dago. Gu-k ondo pasatzearekin nahikoa dugu”.



IKER | KATABERA

“Ni lagunekin kirola egin eta ondo pasatzera etortzen naiz. Hala ere, etorkizunean futboliaria izatea asko gustatuko litzaioguke”.



JULEN ETA IÑAKI | KATABERA

“Ronaldinho bezalako kirolari ona izateko asko entrenatu behar da eta guk, oraingoz, lagunartean bakarrik jokatzen dugu. Asko gusta-
tuko litzaioguke futboliariak izatea baina gure helburua ez da hori”.



AITOR ETA JULEN | UDALA

“Guri futbola eta saskibaloia gustatzen zaiz-
kigu gehien. Futboliariak izatea asko gustatuko litzaioguke, ahal bada Nihat bezalakoak. Handitan Aloña Mentin jokatzea ere oso poli-
ta izango litzateke”.

Iruditan



JOSETXO ARANTZABAL
Gipuzkoako txapelketarako txartelak. Kanporaketan lehen fasea jokatu zen zapatuan Uarkapen. Gimnastaz eta ikuslez bete zen frontoia. Sailkatuen zerrenda apirilean ezagutuko da, 2. fasea jokatutakoan.



JOSETXO ARANTZABAL
Karatea. Ibarreko 92 partaide aritu ziren Oñatin katami eta kutami probetan. Onenak Gipuzkoako txapelketako finalera joango dira.

Ziorla Autoak



Zabaldu berria
Salmenta eta tailer zerbitzua

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE
Tel: 943 77 01 44



BITTOR ARRIARAN | ARRASATEARRA, REALEKO BAZKIDEA

“Aitorri gomendatuko nioke berekoiago izateko”

Xabier Urtzelai

Berriz ere lelo bera: merezi ez baino galdu.

Ba, bai. Ondo jokatuta, jokalarien jarrera ona erakutsita, lerro guztietan lan handia eginga... Baino, opari bat egin eta partidua galdu. Horixe.

Oparia...

Lehenengo mailan ezin da Larreak egin zuen oparia egin, eta gutxiago Valentzia moduko talde baten kontra. Hasteko, huts handia egin zuen atezainaren aurrean izan zuen gol aukeran. Eta, horri gehitzentz badiogu Valentziako aurrelariari eman zion pasea, ba... Pena da, lan handia egin zuelako. Baino ez zen opari bakarra izan, Valentziaren lehenengo golean Riesgok ez zuen bere zutoina ondo zaindu.

Orain jakin dugu West Ham United taldeak interesa agertu dueña Aitor Lopez Rekartengatik.

Nik dakidana da Realak ez duela Aitor saldu gura izan. Horrek erakusten du Realaren-dako Aitor jokalari garrantzitsua dela, eta baita ere kanpoan jokalari hori baloratzen dutela. Eta badakit, baita ere, entrena-tzaile berriarekin Aitor gustura dagoela.

Beste eskaintza bat izango balu, lagun moduan, zer gomendatuko zenioke?

Aitorrek badaki Anoetan bandoela sektore bat berari txistu egiteko gertu dagoena, eta joan den urtekoa berriro ere erre-pika daitekeela. Alde horretatik, esango nioke eskaintza on bat izanez gero berekoiago izateko, bere interesen alde egiteko.



XABIER URTZELAI

Anoetan edo Basati tabernako barraren atzean jarraitzen du Bittorre Realak.

Athleticek aurrerapausoa egin du Santanderren, eta Alavesek atzerapausoa Madrilén.

Arnasa hartzeko puntu oso garrantzitsuak eskuratu zituen atzo Athleticek, baina jokoa hobea

beharko dute, Santanderren gol aukera bakarra izan zuten-eta. Oraindik lan handia dute egiteko. Alavesi dagokionez, nik uste dut presidente horrek duen jarraia ikusita taldea dagoeneko Bigarren Mailan dagoela. Lehengo zuzendaritza taldekoak, Gasteizko instituzioak eta zaleak erantzule dira horrelako pertsona batia daukan boterea emateagatik. Alde horretatik, Pitermanek arrazoi du esaten duenean inork ez duela Alavesagatik berak baino gehiago egin.

“Pitermanek duen jarrera ikusita, Alaves Bigarren Mailan dago”

Harmailatik

Opari garestiena



Xabier Urtzelai

Larrea. Realeko erdilariari kostako zaio edozein jaiegunetan atzoko oparia baino garestiagoa egitea. Futbola ez da justua, eta ez da zertan izan. Eta, ez da justua ordura arte jokalari hori izan zelako Realaren birika, inork ez zuelako Viafararen

hutsunea igarri, han eta hemen egin zuelako presioa (nahiz eta gol aukera garbia huts egin), eta lehenengo minutuak alde batera utzita, motzean bada ere, ondo ateraz zuelako baloia. Baino, atzera egindako pase batek bertan behera bota zuen ordura arte egindako lan ona. Izan ere, Realak ondo egin zion aurre Valentziari, ez ahaztu hori.

Arkonada. Realak entrenatzalea aldatu duenetik ez ditu partidua jarraian irabazi, datuek ez dute hori erakusten. Mallorcaren bisita eta gero (2-1), hurrengo bi norgehiagokak ez dira

nolanahikoak izan. Hala ere, joko mailan taldeak nabarmen egin du gora. Jokalari bakoitzak argiago du bere eginbeharra, hobeto kokatzen dira zelaian eta atzo, adibidez, Ligako talde erasokorrenetako baten aurrean defentsak neurria eman zuen. Konfiantza horrek emango du Betisen kontra garapena.

Boterea. Azkenaldian lanpetuta ibili naiz. Futbol taldea sortu berri dut, zuzendari eta entrenatzalea lanak tartekatuz. Hainbat jokalari fitxatu ditut, ondo ordainduta, eta zein entrenamendu behar duten erabaki dut. Berehala ezabatu ditut lehen zeuden jokalariak, eta nik erabaki dut jokalari berriek non jokatu behar duten, eta noiz. Boterea igarri dut eskuetan, erabakitzeko ahalmen osoa. Baino jokatzen hasi, eta taldea sailkapenaren putzuan ikusi dudanean bideojokoa itzali dut. *Game over*, Piterman.



Urzaiz

Gol aukera gutxi izanda, bestelako partidua egin barik, eta lehengo aurrelaria ez bada ere, Ismael Urzaizek urea balio duen gola egin zuen atzo Santanderren.

Dmtri Piterman

Alavesko presidenteak, oraingo, ez du hemen agintzen. Horrenbestez, oraingo astean ere bera izango da tarte honetan protagonista. Beste aste batez...

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAIZTAK

Racing-Athletic	0-1
Deportivo-Zaragoza	1-1
Cadiz-Osasuna	1-3
Malaga-Mallorca	0-2
Real-Valentzia	1-2
Getafe-Atletico	0-3
Vila-real-Espanyol	4-0
Madrid-Alaves	3-0
Bartzelona-Betis	5-1
Sevilla-Celta	1-0

HURRENGOAK

Osasuna-Deportivo	
Zaragoza-Bartzelona	
Betis-Real	
Valentzia-Getafe	
Atletico-Malaga	
Mallorca-R.Madrid	
Alaves-Racing	
Athletic-Vila-real	
Espanyol-Sevilla	
Celta-Cadiz	

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	55	24	17	3	4	58	21
2. Valentzia	49	24	14	3	7	36	20
3. R.Madril	48	24	15	6	3	47	23
4. Osasuna	46	24	14	6	4	32	25
5. Sevilla	41	24	12	7	5	32	21
6. Celta	39	24	12	9	3	25	25
7. Vila-real	38	24	10	6	8	32	22
8. Deportivo	37	24	10	7	7	32	26
9. Atletico	35	24	9	7	8	30	23
10. Zaragoza	33	24	7	5	12	33	32
11. Getafe	30	24	8	10	6	32	32
12. Racing	27	24	6	9	9	21	27
13. Real	25	24	7	13	4	33	46
14. Espanyol	24	24	6	12	6	20	39
15. Athletic	22	24	5	12	7	26	34
16. Alaves	22	24	5	12	7	24	39
17. Cadiz	22	24	5	12	7	18	33
18. Mallorca	22	24	5	12	7	24	40
19. Betis	22	24	5	12	7	21	37
20. Malaga	20	24	5	14	5	28	39

Kiniela

1. Vila-real-Espanyol	1
2. Sevilla-Celta	1
3. Cadiz-Osasuna	2
4. Bartzelona-Betis	1
5. Real-Valentzia	2
6. Getafe-Atletico	2
7. Malaga-Mallorca	2
8. R.Madril-Alaves	1
9. Racing-Athletic	2
10. Levante-Murtzia	1
11. Xerez-Numantzia	X
12. Hercules-Castellon	1
13. Sporting-Malaga	X
14. Valladolid-Recreativo	2
15. Deportivo-Zaragoza	X

Sei hilabete egon da frontoietatik kanpo eta ikusmin handia piztu du bere itzulerak. 2005. urtea gogorra izan da Abel Barriolaren dako. Orkatila bihurritu zuen

lehenengo, eta abuztuan eskumako eskua operatu zioten. Azaroan hasi zen entrenatzen, baina lau t'erdiko txapelketatik kanpo gelditu da; baita

binakako txapelketatik ere. Orain, ordea, kantxan dugu berriz ere. Itxura ona eman zuen astelehenean Tolosako Beotibarren. Atzo, Bergaran, beste horrenbeste.

ABEL BARRIOLA | PILOTARIA

"Hemendik aurrera, egiten dudana egiten dudala, kantxa barruan egiteko itxaropena daukat"

Larraitz Zeberio

Zer moduz zure bigarren partidua esku berriarekin?

Ez Beotibarren bezain gustura baina ez eskuak arazoak eman dizkialako. Bergarako frontoia nahiko azkarra da eta tako askorekin aritu naiz. Ez zitzaidan eskuak ondo sartzen eta pilotak beti behera egiten du horrelakoetan. Eskuak, behintzat, nahiko ongi erantzun du.

Pixkanaka, baina, konfiantza hartzen ari zara, ezta?

Bai, noski. Espero dut partidu batzuk gehiago jokatu eta laster %100ean jartzea. Horrela beharko luke behintzat.

Astelehenean Beotibarren jokatutako partiduaren ostean kritika oso onak jaso dituzu. Botika hori ez dute farmazietan saltzen, baina bikaina izango da, ezta?

Bikaina da, baina nire ustez kritikak, onak eta txarrak, neurriari hartu behar dira. Kritikorik onena norbera izaten da eta nire kasuan pozik gelditu nintzen. Eskuak sendatuta daukala ikusi nuen.

2005. urtea gogorra izan da zuretzat. Kantxatik kanpo buelta asko eman dizkiozu buruari?

Bai. Behin lesionatutakoan konturatzentzera nola askotan gauza txikiengatik mundu bat egiten duzun. Buelta asko eman izan dizkio nik buruari joko maila txarrean egon naizenean, baina kirolari batendako gaitzik handiena lesionatuta egotea da. Orain, egiten dudana egiten dudala, kantxa barruan egitea espero dut.

Asmatu egin duzu kantxara itzulteko momentua aukeratzan.

Kantxara segurtasun batekin ateratzea gustatzen zait. Oraindik, noski, konfiantzaz eta jokoz ez nago % 100ean, baina argi dago hobetzeko modu bakarra partiduak jokatzea dela. Lau t'erdikotik eta binakako txapelketatik kanpo gelditu naiz. Hainbeste denbora geldirik egonda banean, txapelketa guztien gainetik, garrantzitzuena eskuak ondo jartzea zela. Errekuperazioa uste baino luzeagoa izan da, baina eskuak nola gelditu den ikusita agian sei hilabete galdu beharrean hiru irabazi ditut.

Antza, eskuak ondo duzu. Orain zure maila berreskuratu behar duzu. Gogorra izango delakoan zaude?

Bai. Egia da urte oso onak izan nitzuela, baina orain badaude hiru bat pilotari besteen gainetik daudenak eta esan liteke ni pixka bat atzeratu egin naizela. Horiengana hurbildu nahi badut lan asko egin beharko dut. Ez dakit lortuko dudan, baina saiatu egingo naiz.

Zein sentsazio duzu, zure ibilbidea berriz hasten dela edo hori gehiegiz esatea da?

Ez dakit. Egia da ilusio berri batekin nagoela. Ez dakit etorkizunean zer gertatuko den, baina ebakuntza eskuetatik gehiago ez sufrizkero egin dut.

Egia da eskumako eskuak operatu aurrelik denetarik probatu duzula (masajistikak, sorginak...)?

Horrela da. Ebakuntzarena ez nuen entzun ere egin nahi. Enpre-

sako medikuak aipatu zuen lehenengo eta denetik probatu dut ebakuntza-gelan sartu aurretik. Ez nuen, ordea, emaitzarik lortu. Azkenean, ebakuntza egitea era baki nuen. Ez zidan grazia handirik egiten, baina ez nuen beste erremediorik izan.

Abel Barriola prest dugu, orduan, berriz ere bere mailarik onena emateko?

Saiatuko naiz! Lehen esan dudan moduan hiru bat pilotari daude besteen gainetik, eta txapel baten hautagai izateko multzo horretan sartu beharra daukat. Momentu honetan ez nago maila horretan eta lehenengo multzo horretan sartzen saiatu behar dut. Oso zaila izango da urtetik urtera lehiakortasun handiagoa dagoelako, baina nik nire aldetik dena emango dut. Niregatik eta atzean ditudan zaleengatik.



JOSETXO ARANTZABAL

Abel Barriolak 27 urte ditu. Urte gogorra izan du, baina atzean gelditu da.

22-17 irabazi zuten atzo Eugik eta Barriolak

Ez zen partidu ikusgarri horietakoa izan, baina aspaldiko partez Abel Barriola bertatik bertara jokoan ikusteko aukera izan genuen Bergaran. Eugirekin batera aritu zen gorri eta mendean hartu zituzten Chafee eta Goñi III.a. Partidua gorriek irabazi baino urdinek galdu zuten. Chafee nahiko makal aritu zen surrealdean.



• DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI ESKOLAREN AURKEZPENA

36 TXIRRINDULARI ARITUKO DIRA LAU TALDETAN BANATURIK

Leintz Gatzagako txirrindulari eskolak zapatu goizean egin zuen 2006. denboraldiko taldeen aurkezpena.

Lehenengo lore eskaintza egin zuten Dorletako Amaren santutegian. Jarraian, argazkiak atera zituzten herriko plazan, eta azkenik, aurkezpen ekitaldia egin zuten kultura etxearen.

Lau taldetan banaturik 36 txirrindularik osatzen dute aurten goi-egoan eskola, tartean bi neska. Errepideko bizikletan infantilebinak eta gazteak arituko dira. Mendi bizikletako sailean, berriki, kadeteak eta seniorrak.



Labur

Markel Blanco Euskadiko txapeldun

Gazte mailako Euskadiko txapelduna dugu atzo ezkerro Markel Blanco lasterkari arrasatearra. 6.300 metroko proban hartu zuen esku Lasarten eta bera izan zen bere mailakoen artean azkarrena. Sergio Garcia oñatiarra bigarren sartu zen helmugan.

"Oso pozik nago emaitzarekin", adierazi zigun Markelek proba amaitutakoan. "Haize handia zegoen eta tropelean egin ditugu lehen metroak. Gero, nagusien erritmoa mantentzea lortu dut. Seigarren sartu naiz helmugan, nire mailan lehenengoa".

KULTURA

Aisialdia eta Zerbitzuak

- Turboamor taldeak emanaldia egin zuen egubakoitzean Arrasateko Gure Lekun | 23
- Agirre eta Arzallus bertsolariek 80 lagun inguru eroan zituzten afaltzen Bergarako Artatsera | 24

CREEDENCE CLEARWATER REVIVAL EN KLONIKOAK



Talde kloniko honekin bost urte eta ehunka kontzertu egin dituzte katalanek. Egubakoitzeko Euskal Herriko lehena izan zen.

JOSETXO ARANTZABAL

SWAMP FACTORY | FIDELTASUN SINESTEZINAREKIN, CREEDENCE CLEARWATER REVIVAL TALDEAREN ABESTI EZAGUNENAK JO ZITUZTEN

Oscarren ahotsak lagunduta, talde mitikoa berpiztu dutela eman zuen

Creedence amerikarren tributu taldeak jo zuen egubakoitz gauen Arrasaten. Bertsioak egiteaz haratago, kaliforniarren musika eta izpiritua berpiztea lortu zuten Swamp Factory taldekoek

Jon Berezibar

Simulazio lana ondo baino hobeto egin zuten egubakoitz gauean Swamp Factory taldekoek. Katalan hauek sortutako tributu taldea ez da zaletu hutsek osatutako banda, musikari profesionallen projektua baizik. Eta nahi eta nahi ez, hori guztia soinuan nabarritzen da, ezin hobea izan zen-eta. Betti egongo da izorratzeko gogoa duen puristaren bat edo akatsik txikiarena ere barkatzen ez duen zale porrokatik, baina Creedence taldearen abestiekin gozatu eta zuzeneko talde on bat ikus-teko asmoekin joan zirenek ez zuten iruzurrik jaso.

Blueserako, rockerako edo garai bateko countryrako joerak

erakutsi zituzten Creedencekoek euren ibilbide aberatsean, eta estilo horiek guztiak menderatu eta behar bezala jotzen jakin zuten Swampekoek. Omenaldi polita izan zen zaleentzat, edota, zergatik ez, Creedence taldea aitaren disko zaharretatik eza-gutzen zutenendako ere. Izan ere, nahiz eta *revival* talde batez hitz egiten ari garen, 3.60 aretoa bete zutenen adinaren batez besteko gertuago egon zen 30etik 50etik baino, zale naturalen adina izan daitekeena gutxi gorabehera. Hala eta guztiz ere, gazteak bai, baina Creedence Clearwater Revivalen errepertorioa ezagun zuten gehienek; hori berehala antzematen zen abesti entzune-nen lehen akordeak igarri bezain

laster jasotako txalo eta txistuei erreparatuz. Giroa poliki-poliki berotzen hasi zen eta amaiera-rako ikusleek erantzun zuten.

Profesionalak direnez, teknikoki akatsik gabea izan zen emanaldia

Ondo jakin zuten Creedencen estilo ezberdinetara moldatzen

AHOTSAREKIN ASMATU ZUEN

Kaliforniako laukotearen ibilbidearen begiratu zabala egin zuten Swampekoek emanaldian, baina bereziki aipagarriak izan ziren Creedencen alde blueseroena agertzen zuten abestiak. Horietan modu berezian nabarmen-tzen zen Oscarren ahotsa, puntu batzuetan Fogertyrenarekin erraz nahas zitekeena: imitazio aparta. Taldearen sinesgarritasuna, ziur asko, kideen profesionaltasunaz gain, abeslariak lortutako mimetismoan dago, Fogerty bera pare-parean zegoe-la sinistarazteraino. Zerbaitegatik deitzen zaie Swamp Factory moduko taldeei kloniko, eta ez imitatzale; sinesgarritasun osoa lortzen dutelako izango da.

CREEDENCE CLEARWATER REVIVALEN KLONIKOAK

OSCAR TUGAS | ABESLARIA ETA GITARRA-JOTZAILEA

“Gaur egun, uste dut, bertsio talde batzuk izan dezakeela irteera komertzial handiagoa”

Jon Berezibar

Koadro dun alkandora eta cowboy kapela jantzia, Oscar Tugas katalana John Fogerty, Creedenceko frontman ezagunaren praketa sartzen da zuze-nekoetan. Bost urte daramatza taldearekin batera Creedenceko ohore egiten.

Taldea, espresuki, Creedence abestiak jotzeko batu zenuten?

Funtsean amerikar rockaren talderik handienetakoari egiten diogun ohorea da. Entzule moduan gogoko dugu euren musika, eta oso barnean daramagu euren eskola, musika amerikarraren ondarea, Mississippi bluesa edota hegoaldeko rock-and-roll taldeekin batera. Guk bestelako bandetan ere jotzen dugu, ia guztioak egin dugu ibilbide luzea musikan, diskoeakin eta guzti, errepidean urteetako esperientzia handiarekin.


Hala ere, klonikoen kontu honekin inoiz baino gehiago mugitu ahal izan zaretela ematen du, ezta?

Ia Espainiako Mediterraneoko inguru guztia zeharkatu dugu eta Mallorca, Alacant edota Baratzelona aldean egon gara gehien, Andaluziatik Andorraraino ibili garela esan daiteke.

Badirudi, gainera, Katalunia aldean badagoela tributu banden zelan-baiteko goraldia.

Gaur egun, edozein musikari, jotzen hasteko, estilo baten edo bestearen sartzen da, nondik ikasiazteko. Hori izan daituke arrazoietako bat, baina ez dut uste Baratzelonako moda kontu hutsa denik, bestela ez luke iraungo guztiak hainbeste urte, dagoeneko sendotutako makina bat taldekin. Horietako askok ia banda originalaren soinu bera lortu dute, eta badira ia hamar urte hau abian dela; eta haziz gainera.

Beraz, sarri errazagoa izaten da abesti berriekin baino bertsioekin arrakasta izatea?



JOSETXO ARANTZABAL

Fogertyren ahotsa maisuki imitatzen du Oscarrek.

Baiezkoan nago, egia esanda. Gaur egun irteera komertzial handiagoa du bertsio talde batzuk originalak baino, zirkuituen aldetik batez ere. Oraindik badago lelokeria puntu bat taldeak etiketatzeko eta jendeak oraindik sudurra okertu egin ohi du gauza ezberdinaren aurrean. Are gehiago, 80ko hamarkadako taldeen bertsioak, demagun Radio Futurarenak, hobeto sal daitezke disko originalak baino, abestiak

ezagunak direlako eta jende guztia dagoelako entzuteko prest. **Musikarekiko interesik ez dagoelako edo antzinako banda handi horietakorik ez dagoelako gerta-tzen da azaldutakoa?** Alde batetik, esan beharra dago Creedence sekula ere ez zuela Spainian jo; eta kontuan hartzeakoa da talde klonikoak musikari profesionalek osatzen dituztela eta soinu aldetik ere ikaragarriak direla, askoz ere merkeagoak izateaz gain, noski. Banda handiek eskola sortzen dute eta handik askok edan dugu. Etenet ez den katea da.

Irudia ere zaintzen duzue?

Bai, baina guretzat erraza da, horrela janzen gara-eta egunero. Galtza bakeroekin, alkandorarekin eta botekin.

Jende nagusiagoa joan ohi da tributu kontzertu hauetara?

Batez bestekoa 40 urtetan egongo da. Jarraitzen gaituztenek binilozko diskotatik ezagutzen dute musika hau. Baina jende gaztea ere egoten da, abestiak ezagutu bai baina Creedencenak direla ez dakitenak. Talde oso ezaguna da.

“Amerikar rock-and-rollaren talde handienetarikoari egiten diogun ohorea da funtsean”

“Tributu banda askok originalaren soinu bera lortu dute ia, profesionalak dira”


“Dagoeneko talde kloniko asko daude guztiz sendotuta daudenak eta arrakastarekin”

“Gazte askok abestiak ezagutu bai, baina ez dute jakiten Creedence taldearenak direla”

• ITXURAK BAINO ASKOZ GEHIAGO



HEGOALDEKO DOINUAK. Creedence Clearwater Revival taldearen etapa ezberdinak islatu zituzten kontzertuan Swampekoak. Horietako bat taldearen alderdi bluesera orena izan zen. Cowboy kapera buruan eta gitarra akustikoa soinean *Bad Moon Raising* moduko abesti asko ezagunak jo zituzten Oscar eta konpainiak.



GOZATZEN ETA GOZARAZTEN. Musikari baino lehenago musikazale dira katalan hauek, eta euren talderik gogokoaren abestiak jotzen asko gozatzen dutela begi-bistakoa zen. Swampekoak ondo eta ikusleak ere ezin hobeto, eszenatokiaren aurrean gozatuz. Gehienak, ohi ez bezala, gazteak izan ziren gainera.

Tributu bandak, Katalunia aldetik datorren *revival* sukarra

Katalunia aldean oso ohikoak eta ezagunak dira rock-and-rollaren historiako talde ezagunenak banda klonikoak eta tributu taldeak. Horietako bat da Swamp Factory, Tinglados Management enpresta sustatzailearentzat jotzen duena. Benetako pagotxa aurkitu dute Tingladosekoek klonikoen kontura, eta dagoeneko Katalunian oso ezagunak dira Abbey Road, Beatlesen imitataileak edo Perfect Strangers, Deep Purple-en “klonak” diren taldeak. Askok dagoeneko diskoak grabatu dituzte (hori da Swamp Factorykoen etorkizuneko asmoetako bat).

Ezagunak izateaz gain, arrakasta itzela lortzen ari dira tributu bandak. *Revivalaren* sukar honetaz aprobetxatuta urtero Alcoi hirian banda klonikoen jaialdia antolatzen dute eta 20.000 lagun baino gehiago batzera heltzen dira. Eszenatoki berean batera ikusi ahal izaten dira gau horretan U2, Rolling Stones edo Dire Straits taldeak, beste askoren artean. Moda baino gehiago ere bada, talde asko bertsioak egiten 10 urte baino gehiago ari dira-eta.



Birziklatutako materialein egiten dituzte Mairu taldekoek jantziak.

JOSEKO ARANTZABAL

Irudimenez jositako latorrizko erregearen komedia atsegina

Mairu antzerki talde amateurrak 'Erregea, soldadua eta bufoia' lana aurkeztu zuen; sormen eta umorez jositako obra

Non. Arrasateko Gaztetxean.
Zenbat jende. 30 bat lagun.
Iraupena. Laburra izan zen, hiru ordu laurden iraun zuen.

Larriatz Zeberio

Bera, Lesaka eta Irungo antzerki zaletuek osatzen dute egubakoitz gauean Arrasateko Gaztetxeen egon zen antzerki taldea. Zaletuak izateaz gain, irudimenez larri ez dabilzala ere erakutsi zuten, obra eurek idatzia eta pres-

tatukoa da-eta. *Erregea, soldadua eta bufoia* zeukan izena antzezlanak eta hiru ordu laurden entretenigarri eskaini zizkieten gaztetxera bildutakoei.

Lurraldeak konkistatzen dituen Errege baten istorioa dakar antzezlanak. Modu umoretsuan eta ikusleen partaidetza osoarekin, hiru pertsonaien gorabeherak jasotzen ditu obrak. Ikusleek barrez hartu zituzten euren jokoak eta parte-hartze proposamenak. Izan ere, ikusleekin izan zuten hartu-eman hori izan liteke alderdirik azpimarragarrienetakoa.

IRUDIMENA ATREZZOAN

Bestea, atrezzo eta jantziak sortzeko erabilitako irudimena da, zalantzak gabe. Birziklatutako tresnekin modu originalean aurkeztu zituzten jantziak eta tresnak: kuboekin, abatz-estalkiekin eta parean aurkitutako objektuekin, erregeari ez zitzzion ez tronurik ez koroarik falta izan.

Irakaspenik ere badauka antzezlanak; izan ere, hamaika lorpen eta konkistaren ostean, erregea egindakoaren zentzugebekeriaz jabetzen da eta bufoi bihurtzen du bere burua. Ipuin antzean, beraz, istorio komiko polita aurkeztu zuten Bidasa aldeko amateur hauek. Sortu berria da taldea, urtebete pasatxo besterik ez dabilzta batera, baina lan polita egiteko gai dira.

Jaso du saria Jose Ramon Vitoriak

*V. Donostiarra
Orfeoia-EHU saria
jaso zuen zapatuan.
Biei ala biei,
"benetako eskerrak"
eman zizkien*

Monika Belastegi

EHUko Barriola eraikineko auditoriumean jaso zuen saria Jose Ramon Vitoria irakasleak zapatuan. Alboan zuen beste saritua,

Jose Luis Ansorena musikologoa, eta Donostiarra Orfeoiaren doinuak ere sari-ematearen lekuko izan ziren.

Esker hitzkin batera, era-kundeei dei egiteko aprobetxatu zuen Jose Ramon Vitoriak bere hitzaldia. Izan ere, musika-hezkuntzan behar bereziak dituzten pertsonekin lan egiten du, eta lan horri esker lortu du saria. Mota bateko edo besteko gutxitasuna duten 15 lagunekin egindako lana tesi batean batu zuen iaz, eta hari esker doktore bilakatu da Vitoria.



Ansorena eta Vitoria zapatuan jasotako oroigarriekin.

Elgetako gaztetxearen 10. urtemugako ekitaldiak prestatzen hasi dira

Urteurrena ospatzeko hitzaldiak, kontzertuak, umeendako jolasak eta tailerrak antolatu dituzte, besteak beste

Monika Belastegi

Elgetako gaztetxea okupatu zutela hamar urte beteko dira martxoan. Hala, urtemuga hori ospatzeko ekitaldi sorta zabala antolatu du Elgetako Gazte Asanbladak. Asteburuan, dagoeneko hasi dira urtemuga iragartzeko kartelak jartzen herriko kaleetan, eta baita herritarren artean pegatinak banatzenten ere.

Ekitaldiak datorren egubakoitzean hasiko dira, Inauteriak batera. 22:30ean, Muted eta Bide bat taldeen kontzertua egongo da gaztetxean. Gainera, Inauteriak izanda, apainduta egongo da gaztetxea; baita asanbladako kideak mozarrotuta ere. Kontzertuaren ondoren, trikitilariek jardungo dute kaleko giroa alaitzen.

Bi hitzaldi ere antolatu dituzte: bata martxoaren 3an

izango da eta 24an, bestea. Palestina eta Panama herrialdeen egoeraren gaineko hitzaldiak izango dira seguru asko, nahiz eta oraindik erabat zehazteke dauden, Gazte Asanbladako kideen esanetan.

Martxoaren 4a Umeen eguna izango da, eta egun guztian herriko txikienendako jokoak egongo dira eta baita bazkaria ere. Martxoaren 10ean, berriz, gaztetxearen hamar urteen gaineko mahai-ingurua egingo dute. Horretarako gaztetxetik igaro diren lagunak gonbidatu dituzte.

EGUN HANDIA MARTXOAREN 18AN

Martxoaren 18an ospatuko dute urtemuga eguna. Horretarako egun osoko jaia antolatu dute. Besteak beste, trikipotea, bazkaria eta The Uskis eta DJ Bullekin kontzertuak izango dira.



Mozorrotuta aritu dira asteburuan kartelak jarri eta pegatinak banatzenten.

JOSEKO ARANTZABAL

ROCKA | EMANALDI BEREZIA EGIN ZUEN LAUKOTEAK GURE LEKU TABERNAN

Hobea motza eta ondo aprobetxatua, denbora luzez jotzen aspertzea baino

Ondo entseautako kontzertu intimista izan zen egubakoitzean Turboamorrek egindakoa

Patxadaz dabilta, Gure Leku tabernan egindakoa taldearen hirugarren kontzertua izan zen

Non. Arrasateko Gure Leku tabernan.
Zenbat jende. 50 bat lagun.
Iraupena. Hiru ordu laurdenez jo zuten tabernako lagun giroan.

Jon Berezibar

Gauerdia gerturatzenten zihuala ekin zioten Turboamorrekoek euren hirugarren zuzenekoari. Musika berezia egiten dute (Arrasaten bai behintzat) eta, horregatik agian, askotarikoa izan zen Gure Leku tabernan batutako jendea. Gazte eta ez hain gazte, giro ezberdinak, poliki-poliki taberna betetzen joan ziren. Talde nahiko hetereogeneoa da Turboamorreko, bluesetik edota rocketik datozen partaideekin, eta horretan oinarritu daitke euren ukituaren berezitasuna. Popa oinarri, gitarra trinko eta atmosferikoek bilduta, emanaldi ilunzale eta trinkoa egin zuten, abestiz abesti aurrera egin eta urduritasuna desagertzera-koan, gorputza hartzen joan zena. Hitz intimista eta ondo lotuekin, giro bitxia sortu zuten tabernan. Surfin' Bichos edota Lagartija Nicken oihartzunak entzun zitezkeen, baina handik haratago badute izaera propioa, beti kanpoko erreferenteen bila ibili beharrak gabe. Honetaz gain, argi geratu zen entsegu aretoan orduak eta orduak egin dituztela, oso prestatuak eroan zituzten-eta abestiak.

IKUSLEAK ERE POZIK

Hori izan zen, behintzat, tabernan suma zitekeena, hau da, taldeak eskaintzen dituen zuzeneko urrien zain bazegoela jendea. Izan ere, hasiera baten ordu erdiko emanaldia egiteko asmotan zebiltzan, baina errepertorioa amaituta, jendea gehiagoren eske hasi eta beste ordu laurden egin zuten. Amaitzeko, gainera, abesti berri bat ere aurkeztu zuten, opari modura-edo, eta bertsiorik ezean, euren abestirik ezagunena jo zuten berriz. Saioa laburra izan bazen ere pozik zegoen jendea eta taldekoek ere hori nabaritu zutela ikusi zen. Gehiago jasotzeko gogoarekin geratuko zen nor edo nor, baina hobea

to laburra eta ona luzea eta eska-sagoa baino. Izañ ere, motza baina ondo aprobetxatutakoa izan zen emanaldia, ongi prestatua eta txukun joa. Taldeak bere erritmoa dauka, lasaia agian, baina eurek gura duten modukoa. Eta poliki-poliki hartuko diote zuzenekoari ere zaletasuna. Nahiz eta eurek horri lehentasunik ez eman.

Orotara, polita da korronte nagusitik aldentzen diren musikei ere tartea egiten zaiela ikus-tea, aberastasuna badagoela. Turboamorrekoek ere hori badakite, eta bakoitzak bere lekua izan dezakeela. Lan polita egin zuten egubakoitzean. Ea hurrengorako gutxiago itxaroten duten.

XUXE | ABESLARIA ETA GITARRA-JOTZAILEA

“Gustuko dugun musika egiteko elkartzengarria, zuzenekoak beste gauza bat dira”

J. B.

Turboamor proiektuaren alma materra da Xuxe. Lehen maketa berak grabatu zuen 97an eta horrek eman zion hasiera taldeari. Ostean errekrutatu zituen gainontzeakoak.

Danbakan aurkeztu zinetenetik, hau da zuen lehen kontzertua?

Bai, hala da, zail izaten duguetu guztiok zuzenean jotzeko bilteza. Gainera, taldea ez dugu zuzenekoetarako sortu, gusta-

tzen zaigun musika egiteko aitzakia moduan baizik. Bakoitzak bere gauzak ditu eta ez da hain erraza.

Zeuk abiari zenuen taldea, ezta?

Bai, nik egindako maketa batekin hasi nintzen, eta Arrasaten egiten den musikaren nahiko ezberdina zenez jendearen bila hasi nintzen.

Hala ere, entseatzeko gehiago geratzen zarete, ezta?

Batzutan astean behin elkartzen gara eta beste batzuetan ezta hori ere, une bakoitzaren arabera koo da.

Eta etorkizunean estudiora joateko asmorik baduzue?

Ez momentuz, gure asmoa eta nahia jotzea da batez ere, eta gorputzak eskatzen diguna egiten dugu. Noizbait grabatzea era-bakitzen badugu, orduan egingo dugu, baina oraingoz ez daukagu horretarako asmo berezirik. Egia esan, ez daukagu asteburuero kontzertuak egiteko kantora irteteko gogorik. Guk gus-tuko duguna egiten dugu, nahiz eta hemen inguruau horrelako musikariak ez den egiten. Deneratik dago eta jende asko dabil



Xuxe, Turboamoren bultzatzailea.

musikan, alde horretatik askotarik eskaintza dago eta egoera ona da Arrasatekoak. Jende askok entseatzenten du. Gaztetxe inguruaren gertatzea besterik ez dago hori ikusteko.

LAN ESKAITZA

Bergarako Depor tabernan,
ZERBITZARIA
EDO SUKALDARI
LAGUNTZAILEA
behar da.

Interesatuok deitu:
629 26 88 51

**TOKI
ALAI
TABERNA**

**Karajiloetan
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan
profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurretxueta 16 behe
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Fax: 943 71 30 58


Hirusta
Tatxoa

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABAleta



Kontrekoek ere ekarpen berrikin datorzela erakutsi zuten, malgutasun handiarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

Euskal metalean indartsu aurrera doan taldea da Biok

Maketarekin interesa piztu zuten eta lehen diskoarekin izena hartzen hasi dira; baina, tamalez, jende gutxi animatu zen

Non. Oñatiko Gazteleku.
Zenbat jende. 30 bat lagun.
Iraupena. Hiru orduko jaialdia osatu zuten bi taldeek.

Asteleheneko Goienkaria

Kontre bizkaitarrek gogor ekin zioten gauari. Ikusle gutxirekin baina gogoz beteta metal eta trash indartsuenekin astindu zituzten Oñatiko Gaztelekura zapatuun gerturaturiko lagun bakanak. Euskal heavy-rockean oinarri

sendoa dutenez metalari tingo eman zioten, gitarra deskarga gogorrekin amorru guztia atereaz. Lokalean grabatutako makeeta bakarra dute oraindik kalean, baina lan egiteko gogoa sobera dutela ematen du. Maketa lan hori ezagutarazten eta taldeari *rodajea* ematen ari dira orain, esperientzia lortze aldera. Itxura, ez daukate batere txarra.

DISKO BERRIA

Maketen garaiaik gaindituta, berriki desagertutako Metak diskoetxearekin atera zuten estrei-

nako diskoa Biok galdaoztarrak. Lehen maketarekin zeresana piztu zuten bizkaitarrek euskal metalaren munduan, eta asko itxarondako diskoa izan da iaz kaleratu zutena. Zuzenekotan, ostera, betiko planta eta indar bera agertzen dute. Metalean aurrera gogor ari dira egiten Biokokoak, eta euskal talderik indartsuenetako bat dela argi eta garbi utzi zuten beste behin ere.

Metala euskal taldeetan oso zabaldurik badago ere, haize berriak dakartzate Galdakao eta Usansolo inguruetatik. Zuzeneko bikainak bermatzen du diskoa eta, tamalez, Gaztelekuko ikusleek ez zuten erantzun. Iaztik kalean dute *Margo Debekatuak* lan indartsua.

Arzallus, Agirre eta beste 80 lagun

Bergarako Artatse elkartearak urtero egiten duen bertso afaria izan zen zapatuun; dagoeneko zortzigarrena

M.B.

Bata, gaztea, eta bestea, adinekoak. Amets Arzallus eta Joxe Agirre, hurrenez hurren, eta horretxek eman zien, euren etik abesteko

aukera: gaztetasunetik zahartzarora, eta alderantziz. Beste makina bat gai ere hartu zituzten bertsotan egiteko: presoak, gaur egungo aurrerapenak... Eta Bergaran egonda, Debagoieneko gaiak ere bai, tranbia eta beste lako azpiegiturak, esaterako.

Zortzigarren urtez egin dute bertso afaria Bergarako Artatse elkartean eta harrera ezin hobea izan zuen: 80 bat bertsozale batu ziren ondo afaldu eta Agirreren eta Arzalluzen bertsoak entzutera. Datorren urtean etorriko da hurrengoa.



Debagoieneko kontuak ere izan zituzten kanturako gai Agirrek eta Arzallusek.

Piztiak taldeak bigarrenez bisitatu gaitu aurten 'Euriaren zain' lanarekin

Elgetako Espaloian aritu ziren ondarroarrak egubakoitzean. Bideoz lagundutako emanaldia egin zuten

Naiara Larrañaga

Betiko rock doinuak erabat alboratu barik eta euren kantu sakonei eutsiz, *Euriaren zain* ikuskizuna aurkeztu zuen Piztiak taldeak Elgetan. Betiko jarraitzaileek egin zieten ondo-etorria Espaloian ondarroarrei: Txomin Uribe (guitarra eta ahotsa), Josu Aranbarri (baxua eta ahotsa), Peio Larrañaga (bateria) eta Jose Lastrari. Hiruko lez ari diren arren, Lastra eta Josu Eizagirreri zor diete, hein handi baten, *Euriaren zain* ikuskizunaren pisua. Lastra soinuteknikari lanetan ari da eta Eizagirre, berri, bideo-soritzalea. Kanta bakoitza irudiz laguntzen dute piztiek zuzenekoan; pantaila handi baten aldiiora erakutsi zituzten kantekin lotutako irudiak eta bideo-klipak. Begiak eszena-

tokira ordez pantailara ere joateko moduko irudiak, askotan.

Ordu eta berrogei minutuko zuzenekoia izan zen eta bost abestiko bisa ere egin zuten gainera. Zuzeneko ona eta kontzertu atsegina eskaini zuten. Kanta zaharrak eta azkeneko lanean bildutakoak, *Euskadi Gaztean* entzuten direnak, jo zituzten ondarruarrek.

LAUTIK HIRURA ETA BOSTERA

Lautik hiru kide izatera pasatu dira Piztiak lan berrian. Bainan bi lagun berriren laguntza ere izan dute *Euriaren zain* ikuskizuna osatzeko orduan. Durangon aurkeztu zuten euren azkeneko lana eta han jasotzen da ikus-entzunezko arloan egindako lan osotua. Ondarroako kafe Antzokian 2005eko maiatzaren 28an egindako kontzertua ere jasotzen da DVDan.



Elgetan aritu ziren, Debagoienean aurten bigarrenez, Piztiak taldekoak.

JOSETXO ARANTZABAL

BERRI ONAK



Egunkari plurala, irekia, integratzailea eta dinamikoa. Hemen bertan idatzia.

Errioxako
upategi entzutetsu
batera joateko
20 bidaia
zozkatuko ditugu.
Parte hartu nahi baduzu, bete ezazu
txartela otsailaren 24an Noticias
de Gipuzkoan aurkituko
dituzun kupoiekin

OSTIRAL HONETAN DOAN.
ESKA EZAZU ZEURE KIOSKOAN.

Antzuolan jaiotako Oscar Candendo organo-jotzaileak itxi du aurtengo Gipuzkoako Organo Errromantikoko Nazioarteko jaialdia. Guridiren obra berezi

batekin egin zuen zapatu arratsaldean emanaldia Easo abesbatzarekin batera. Zikloan parte hartzen duen bigarren aldia da eta, esaten duenez, Bergarako organoak

soinu berezia du, obrarik ederrenak ere jotzeko moduko. Gaur egun irakaslea da Bartzelonan eta Easo abesbatzako organo eta piano-jotzailea.

OSCAR CANDENDO | ORGANO JOLEA

“Bergaran eta inguruan dauden organoekin munduko jotzailerik onenak ekar daitezke”

Jon Berezibar

Gaztetan joan zinen kanpora, baina musikan lehen urratsak bertan egin zenituen, ezta?

Bergarako Mariaren Lagundiarena izan zen nire lehen eskola. Piano irakasle oso ona geneukan orduan, Amparo Navarro moja, eta bederatziz urte nittuela hasi nintzen musika ikasten. Bi urte geroago, hamaikarekin, Donostiarra joan eta bertan jarraitu nuen kontserbatorioan sakontzen, piano karrera amaitu eta organoa jotzen ikasten. Baiona eta Frantziako Tolosan ere izan nintzen ikasketak egiten eta Alemanian egin nituen goi mailako azken ikasketak, Stuttgart. Izan ere, Alemanian eta Frantzian daude organo eskolarik garrantzitsuenak, edo behintzat, ospetsuenak.

Bergarara itzulita, ospea hartzten ari da jaialdia?

Hala da, organoengatik batez ere. Bai Azkoitikoa, bai Loiola-koa, bai Bergarakoa oso organo ederrak dira eta haietan munduko organo-jotzailerik onenak ekar daitezke bertara. Nik, behintzat, benetan pozik jotzen dut hemen. Disko asko grabatu dira hemengo organoekin, oso ezagunak dira-eta, ez bakarrik European, Ameriketan eta Australian ere badute haien berri.

Organo on asko dauzkagu inguruau, berdin gertatzen da jotzaleekin ere?

Batez ere XX. mendean oso organo-jotzaile eskola ona egon da hemen eta oraindik organo-jotzaile asko daude. Elizetan ere sarri jotzen da. Esan daiteke leku ona dela organoari dagokionez.

Hain ohikoa ez dena, zure moduko organo-jotzaile gazteak aurkitzea. Giulio Merkati gaztea ere izan zen Bergaran, gorantz doan instrumentua da?

Gazte asko ari da berriz ere organoa jotzen. Jendeak pentsa dezake nagusiendako instrumentua dela, elizetan jotzen dutenak zaharragoak izaten direlako. Baina kontserbatorioetan eta musika eskoletan gazte asko dabil organoarekin, hemeretzi urtiketik hasita. Kontua da, organoa jo ahal izateko heldua izan behar zarela, pedal guztietara heldu ahal izateko gutxieneko altuera izatea beharrezkoa da. Nik Bartzelonan ematen ditut eskolak eta 17 bat urterekin sartzen dira ikasleak bertara. Interesa, gutxinez, badagoela esan daiteke organoko goi mailako ikasketak egiteko.

“Organoa entzuteko tokirik onena eliza da, nahiz eta gaur egun elizkizunetan antzina zegokion lekua kendu zaion”

“Sekula ere ez dut asmatu gogoratzentz bultzatu ninduen musika eta organoa umetatik ikastera”

Zuri ere goiz piztu zitzazun organoarekiko interesa?


Askotan galduen izan diot hori bera nire buruari, zeren nire familian ez baitago musikari bat bera ere, eta sekula ere ez dut asmatu. Txikitik neukan interesa. Antzuolan ez zen hain ohikoa piano bat ikustea garai hartan, baina elizan bageneukan organo-jotzaile on bat, nire lehenengo solfeo irakaslea izan zena eta agian horrela hasi nintzen. Gizon hark erakutsi zigun niri eta anaiei. Honi guztiari buruz daukan lehen akordua amari pianoa jotzen ikastea gura nuela esan nionekoa da. Amari, baserri giroko bera, arraraoa iruditu zitzazion, baina niri betidanik gustatu izan zait.

Elizkizunarekin lotzen den instrumentua izan da, elizatik kanpo erabileraik badu?

Uste dut organoa entzuteko lekurik onena eliza dela, garbi dago hori. Liturgiari dagokionez, antzinakoak leku gehiago uzten zion organoari, eta gaur egun murritzagoa da gure lana, baina batez ere elizkizuna behar bezala egiten ez delako gertatzen da hori. Horretaz gain kontzertuak daude, eta Euskalduna moduko auditoriumetan ere organoak egon ohi dira.

Zeu izan zara jaialdiko amaiera emanaldiaren arduraduna. Berezia izan da horregatik?

Guridiren obra bat estreinatu nuen emanaldian. Oso gutxi jotako *Gabriel Goiangeruaren meza* delako obra jo nuen. Uste dut behin bakarrik jo dela eta Bergaran egindako saioa ia estreinaldia izan da. Betiko moduan gregorianoz egindako zatiak egon



JOSETXO ARANTZABAL
Guridiren obra ez oso ezagun bat berreskuratu zuen Oscar Candedok.

ziren, Easo abesbatzarekin. Eskolaniaz gain kapera gregoriana batere badauka eta honela osatu genuen emanaldia. Oso pozik jo nuen, obra eder hori berreskuratzeko aukera izateagatik batetik, eta bestetik, musikagile bikain baten obra jo genuelako


abesbatzarekin, Guridi maisu handia da-eta. Forma aldetik ere obra berezia da eta horrek ere xarma ematen dio. Jaialdira natorren bigarren aldia da eta benetan oso gustuko dut; esan bezala, organoengatik eta baita lekuarengatik ere.

‘Gabriel Goiangeruaren meza’ izan zen itxiera saioko ardatz nagusia

Easo abesbatzako kapera gregorianistak hartu zuen parte azken saioan Oscar Candendorekin batera. Xabier Irastortzaren zuzendaritzapean oso gutxi entzundako Guridiren *Gabriel Goiangeruaren meza* entzun ahal izan zuten Bergarako San Pedro parrokiara joandakoek. Organo-jotzailearen zein abesbatzen aldetik kontzertz handia izan zen. Izan ere, gregorianistez gain haurren koruak eta gizonen abesbatzak osatu zuten polifonien zatia. Guridiren obra sakraturik garrantzitsuena da *Gabriel Goiangeruren omenez egindakoa*, eta mende hasieran lehenengo aldiz jo zenetik, berriz ez

da obra hau entzuteko aukerarik egon. Kontuan hartzekoa da, izan ere, jaialdiaren helburuetako bat ahazturik dauden obra eta partitura berreskuratzea da, eta horregatik aukeratu zuten Guridiren obra hau, egileak bere azken urteetan idatzia eta hiru ahotsek osatutako koru batekin abestu beharrekoa.

Zazpigarren edizioa amaituta, antolatzaileak hasi dira datorren urtekoan pentsatzentz. Oraingoz, aldaketa bakarra iragarri dute. Orain arte ez bezala, 2007an irailaren azken astean hasi eta urriko lehendabiziko hiru astetan egingo da Organo Errromantikoko Nazioarteko Jaialdia ohiko lekuetan.



Emakumeen gaineko film laburren lehiaketak 1.500 euroko saria emango du

Arrasateko Udal Berdintasun Sailak antolatu du lehiaketa hori, lehenengo aldiz, eta ekainaren 2a da mugaeguna

Leire Kortabarria

Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak egunotan jakinari zituen bere lehenengo film labur lehiaketaren oinarriak. *Emakumeak Arrasateko Historian* da izenburua. 1.500 euroko saria ipini dute film labur onena bidaltzen duenarendako.

Lehiaketaren helburua honakoa da: emakumeak Arrasateko bizitza sozial, politiko, kultural eta ekonomikoan egin dituen ekarpenak eta izan duen parte-hartzea ikustaraztea.

OINARRIAK

Edozein lekutako errealdoreek parte har dezakete lehiaketan, banaka edo taldeka, eta

film labur onena bidaltzen dueñarenak 1.500 euroko saria dago.

Lehiaketan, 2003ko urtarrilaren 1az geroztik ekoiztutako lanak bakarrik onartuko dituzte. Errealizadore edo talde bakoitzak bi lan aurkez dituzte gehienez ere, eta edozein hizkuntzaz egon daitezke. Lanak aurkeztenko mugaeguna ekainaren 2a da, eta lehiaketa bera ekainaren 12an egingo da.

Oinarri osoak www.arrasate-mondragon.net webgunean dituzue.

IDAZKERA TAILERRA

Idazkera tailerra ere antolatu du Emakume Txokoak, baina idazkera mota berezia: gorputzarekin eta zentzumenekin lagundutakoa. Martxoaren 7an, 14an eta 21ean emango dute. "Gorputz kontzientzia eta zentzumen ariketak erabiliko dituzte idazteko. Helburua da "norberaren idazkeria lantzea, bakoitzak duen estilo eta eran, idazkeraz gozatuz", diote antolatzaileek.

Argibide gehiago, Emakume Txokoan (943 79 41 39).

Labur

'Todos Nacemos Vascos' antzezlana ikusteko sarrerak agortuta daude

Todos Nacemos Vascos antzezlanerako sarrerak agortu egin dira Oñatin. Hori dela eta, bigarren emanaldi bat antolatu dute, eta horretarako 270 sarrera salgai daude 15 eurotan kultura etxearen. Emanaldi hori otsailaren 24an egingo dute ere, 20:00etan, Santa Ana antzokian; lehen antolatuta zegoena 22:30ean izango da.

Bergaran ere egingo dute antzezlan hori, martxoaren 31n, eta oraindik sarrera asko geratzen dira -700 bat lagunendako leku egongo da-. Kultura etxearen eta Elkar liburu denden daude salgai.

Eider Rodriguez idazlearekin bere liburuaz berba egiteko aukera

Eider Rodriguez idazlea (Orereta, 1977) Arrasateko kultura etxera etorriko da etzi, eguztena, *Eta handik gutxira gaur* (Susa) liburuaren gaineko tertulia egitera. Parte-hartza irekia da, baina ezinbestekoa da liburua irakurri izatea, horretaz izango da eta berriketaldia.

Eta handik gutxira gaur Eider Rodriguezzen lehen liburua da, eta Joseba Jaka bekaren laguntzarekin argitaratu du. Ipuin liburu da; bakardadea, maitasuna, gizarte gatazkak... lantzen ditu.

Gorrotxategi gozogintzaren museoa ikusiko du Zahar Berrik

Arrasateko Zahar Berri proiektuko berba taldeak, euskal gozogintzaren kultura ezagutzea, Tolosako Gorrotxategi museora irteera egingo du otsailaren 25ean. Autoz joango dira, goizean. Museoa bisitatzeaz gain, Aratusteetako poteoa egingo dute. Euskaltegi edo AEDn (943 77 12 28).

Museo hori Jose Mari Gorrotxategi gozogileak antolatu zuen, Euskal Herriko lanbide tradizional horren berri emateko. XIV-XIX. mende bitartean egindako lan teknikak erakusten ditu.

Hitzorduak



'TRIKITRAKA TRIKITRON' SAIKO BI ATAL GRABATUKO DITUZTE I

Arrasateko Amaia antzokian izango da grabaketa gaur, astelehena, eta bihar, martxitzena

Txitri, Mirri eta Txiribiton pailazo ezagunek Euskal Telebistako *Trikitraka Trikitron* saioko bi atal grabatuko dituzte egunotan Arrasaten, Amaia udal antzokian. Gaur, astelehena, 91. atala, Koadro Magikoak, grabatuko dute, Moro katuarekin eta Dunbadunba perkusio taldearekin; eta bihar, mar-

titzena, Ezkontza agentzia delakoa, Marsel magoarekin eta Kakusinarekin. 19:00etan hasiko dira. Sarrerak lortzeko bideak hauek dira: www.servicaixa.com webgunea, Servicaixako kutxazainak, edo 902 33 22 11 telefonoa. Bestetik, Amaiako txarteldegia 16:00etan irekiko dute.

ZINEMA I

• *Los dos lados de la cama* filma emango dute Oñatin

Gaur, astelehena, izango da film hori ikusteko aukera kultura etxearen, 19:30ean.

• *Hay motivo delako filma emango dute Elgetan*

Hay motivo filma emango dute etzi, eguztena, Elgetako Espaolia antzokian. Spainiako 2000-2004 legealdiko hainbat alderdi kritikatzen dituzte 32 film laburren bidez.

• *La pesadilla de Darwin* dokumentala emango dute

La pesadilla de Darwin dokumentala emango dute eguzten, hilak 23, Oñati kultura etxearen, 20:00etan; askoren esanetan, azken urteotan Europaren den dokumental onena. Afrikako Victoria lakuan arrain espezie berri bat sartzear izan dituen ondorio larriak erakusten ditu.

• *Lutero filma emango dute* Arrasaten, zineklubean

Eguenean, hilak 23, emango dute film hori Arrasaten, Amaia antzokian, 20:30ean. Luterok Errromako ustelkeriarekin amaitzeko hasi zuen erlijio erreforma kontatzen du.

ERAKUSKETAK I

• *Karikatura erakusketa ipini dute Espaolia antzokian*

Maria Dolores Lonbide soraletzarraren margolan era-

kusketa ipintzeoak ziren Elgetan, Espaloian, baina atzeratu egin behar izan dute. Horren ordez, karikatura erakusketa dago hilaren 25era arte.

• *Iñaki Moreno Ruiz de Eginoren artelan erakusketa*

Iñaki Moreno Ruiz de Eginok (Donostia, 1953) lan grafiko eta eskultura erakusketa du Bergarako Aroztegi aretoan. Hau da bisita ordutegia: astelehan, 18:00, 20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domenekan, 12:00-14:00.

• *Dani Laskurain bergararrak erakusketa ipini du*

Dani Laskurain (Bergara, 1966) margolariaren 18 lan daude erakusketa Bergaran, Masterreka kaleko Nahikari tabernan, otsail osoan.

• *Kontsumoaren gaineko erakusketa Eskoriatzan*

Kontsumoa: janari, jantzi eta zapaten etiketak delako erakusketa ipiniko dute Ibarraundi museoan. Hilaren 23tik, eguna, 26ra bitartean izango da.

• *Naturaren gaineko bi erakusketa ipini dituzte*

Honako erakusketak daude egunotan: *Goroldioak: uraren xarma* delakoa Natur Eskolan; eta *Ugatza, saia eta saizuria* delako argazki erakusketa kultura etxearen. Natur Eskola-ko martxoaren 9ra arte dago zabalik; kultura etxeko, otsai-

aren 27ra arte. Natura Astearen barnean antolatu dituzte.

• *Zubiaga margolariaren lan berriak, erakusketa*

Zubiaga margolariak hainbat lan dauzka erakusketa Arrasaten, Iturriozt kaleko Harresi aretoan. 32 bat lan dira, paisaiak, gehienak Kantabriako Liebana haranekoak. Teknika aldetik, olioak dira. Honako ordutegian bisita daiteke: astegunetan: 18:00-20:00; zapatatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

LEHIAKETAK I

• *21. Koldo Eleizalde*

Lehiaketa deitu dituzte

Koldo Eleizalde Lehiaketa deitu ditu Bergarako Udal Euskara Zerbitzuak, ipuin, bertso, komiki-tira eta ipuin kontaktaketa edo antzerki kategorietan. Komiki-tira eta bertso kategorietan, edozein debagoiendarrek parte har dezake; gainerakoetan, Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenak. Argibideak, www.bergara.net webgunean.

• *Aratusteetako mozorro*

Lehiaketa deitu dute Bergaran Bedelkarrek mozorro lehiaketa antolatu du. Aratuste egunetako baten ikusten den mozorro originalena eta giro onena sortzen duena sarituko dute. 160 euroko txartela emango diote Bedelkarren gastatzeko.

Eguraldia

Astelehena, 20 | Martitzena, 21 | Eguaztena, 22 | Eguna, 23 | Egubakoitzta, 24

**Tenperaturek nabarmen egingo dute
behera eta euria ere izango dugu**

Giroa hotzagoa izango da gaur. Barnealdean tenperatura maximoak 6-7 gradu ingurukoak izango dira. Hodeiak eta euria izango dira nagusi, bereziki goizaldean eta arratsalde-gau par-tean. Haizea ahuldu egingo da eta elur-maila 700-800 metro inguruau kokatuko da. Bihar, martitzena, berriz egingo du

behera tenperaturak eta euri ugari egingo du. Eguaztenean ere antzeko eguna izango dugu: euria egingo du, baina tenperaturak pixka bat igoko dira. Eguren eta egubakoitzak ere ez dute aurpegia aldatuko. Euria eta zero ilunak izango dira nagusi. Tenperatura hotzak izango ditugu.

Goardiako farmaziak**ARRASATE**

Astelehena, 20	Ruiz Perez	Maalako Errabala, 31 (943 79 14 09)
Martitzena, 21	Zabala	Zarugalde, 42 (943 77 16 30)
Eguaztena, 22	Azkoaga	Ferrerias, 1 (943 79 15 15)
Eguna, 23	Azkoaga	Iturrioz, 17 (943 79 79 99)
Egubakoitzta, 24	Corcuerca	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)

BERGARA

Astelehena, 20	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Martitzena, 21	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Eguaztena, 22	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguna, 23	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Egubakoitzta, 24	Camacho	Oxitondo, 4 (943 76 11 74)

ONATI

Astelehena, 20	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Martitzena, 21	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguaztena, 22	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Eguna, 23	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Egubakoitzta, 24	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)

ARETXABAleta

Astelehena, 20	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Martitzena, 21	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguaztena, 22	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Eguna, 23	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
Egubakoitzta, 24	Iturrealde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)

Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Oasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzainoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

GARRAOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 28
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzainoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Zozketak**BONOLOTOA**

Astelehena, 13
2 • 4 • 7 • 13 • 20 • 33

Osagarria: 12 | Itzulketa: 9

Martitzena, 14

1 • 5 • 16 • 23 • 26 • 44

Osagarria: 28 | Itzulketa: 4

Eguaztena, 15

6 • 12 • 25 • 27 • 34 • 45

Osagarria: 43 | Itzulketa: 2

Egubakoitzta, 17

4 • 5 • 12 • 19 • 35 • 45

Osagarria: 27 | Itzulketa: 8

ONCE

Astelehena, 13 **29.807**

Martitzena, 14 **78.871**

Eguaztena, 15 **92.900**

Eguna, 16 **29.112**

Egubakoitzta, 17 **62.907**

Kupoitzarra (003 seriea) **47.794**

Domeka 19 Kupoitzarra (007 seriea)

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguna, 16
4 • 29 • 39 • 42 • 47 • 49

Osagarria: 45 | Itzulketa: 3

Zapatua, 18
3 • 30 • 37 • 42 • 47 • 49

Osagarria: 45 | Itzulketa: 3

Zapatua, 18 (Saritzarra)
8 • 9 • 7 • 33 • 11

Itzulketa: 1

Gazte zerbitzuak**BEKAK |**

• III. Korrika-AEK Beka Euskara eta euskal kultura bultzatzeko helburua du. Dokumentazioa apirilaren 24tik 28ra aurkeztu behar da AEKren egoitzetan.

• Atzerriko unibertsitateetako irakurleentzako 2006-2007 ikasturterako laguntzak.

Lizentziaduna edo Doktore izan behar da. Epea: otsailak 26.

IKASTAROAK |

• UEUKO neguko tailerrak:

Pertsonen arteko komunikazio eraginkorra, Kontatzetik mintzatzera, Espresio dantza, Euskal musika eta kultura eta Emakumeentzako dantza. Eibarko Ikastetxe nagusian. Epea: otsailak 22.

• Babes pertsonala eta sormenezko idazkerari buruzko ikastaroak antolatu ditu

Arrasateko Emakume Txokoak

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:

Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65

gaztebulgoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Kultura etxea. 943 77 91 57

gzerbitza@euskalnet.net

Zorion agurrak



ARRASATE
Joseba Lizaranu
Otsailaren 14an, 24
urte. Zorionak eta
muxu bat, txetxe!
Familiakoentzako partetik.



ARRASATE
Daniel Uribesalgo
Otsailaren 20an, 9
urte. Zorionak eta
muxuak, pretxio!
Musakolakoak.



ARRASATE
**Myriam Beltran de
Heredia**
Otsailaren 22an.
Zorionak eta muxu
bat, izeba. Lobak.



BERGARA
Xabier Labaka
Otsailaren 24an, 12
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Senitartekoak.



BERGARA
Ane Laskurain
Otsailaren 20an, 7
urte. Zorionak, preziosa.
Etxekoak eta
berezi, Markelek.



BERGARA
**Ibai Etxabe
Agirrezabal**
Otsailaren 20an,
3 urte. Urte askotar
rako! Familiakoak.



BERGARA
Nere Zurro
Otsailaren 26an, 10
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Eider Monkiaola
Otsailaren 21ean, 8
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Uxue Agiriano
Otsailaren 23an, 5
urte. Zorionak eta
muxu handi bat!
Familiakoak.



BERGARA
Xabi Arzelus
Otsailaren 25ean, 3
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



ONATI
Maider Murillo
Otsailaren 16an, 8
urte. Zorionak eta
muxu bat! Etxekoentzako
partetik.



ESKORIATZA
Lide Crespo
Otsailaren 23an, 6
urte. Zorionak eta
muxu handi bat.
Etxekoak.



ELGETA
Iban Arantzabal
Otsailaren 21ean,
urte bat gehiago.
Zorionak! Lagunak
eta lankideak.



ARAMAIO
Euken Ugarte
Otsailaren 18an, 14
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoentzako partetik.



Zorionak!

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu
nahi baditzu, **ARRASATE IRRATIAK**
egunero ematen ditzu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIA

FM107.7
ARRASATE
IRRATIA

Jaiotakoak



Beñat Larrea Martin
Antzuola • 3,350 Kg. Otsailak 12.
Gurasoak: Silbia eta Josu
(Antzuola). Argazkian: Beñat.
bapo lo.



Itsaso Markiegi Baskaran
Bergara • 3,135 Kg. Otsailak 13.
Gurasoak: Josune eta Ander
(Bergara). Argazkian: Itsaso amaren
besoetan, amonarekin batera.



Maialen Ruiz Diaz
Elgoibar • 3,450 Kg. Otsailak 15.
Gurasoak: Cristina (Bergara) eta
Iban (Elgoibar). Argazkian:
Maialen, bapo lo amaren besoetan.



Ane Lasabaster Rodriguez
Arrasate • 3,660 Kg. Otsailak 15.
Gurasoak: Amaia eta Josu
(Arrasate). Argazkian: Ane, bapo
lo bere kuman.



Amalur Garcia Arrieta
Antzuola • 3,515 Kg. Otsailak 15.
Gurasoak: Onintza eta Mikel
(Onati). Argazkian: Amalur, amoaren
besoetan, ama alboan.



Bogdan Cabezas Dabila
Eskoriatza • 2,600 Kg. Otsailak 16.
Gurasoak: Cristina eta Jose
(Eskoriatza). Argazkian: Bogdan,
gurasoekin.




Arkaitz Aretxaga Valle
Antzuola • 3,120 Kg. Otsailak 19.
Gurasoak: Aitziber (Bergara) eta
Jon (Andoain). Argazkian:
Arkaitz, aitaren besoetan.



Elaia Maure Azkarate
Bergara • 3,010 Kg. Otsailak 19.
Gurasoak: Nora eta Asier
(Bergara). Argazkian: Elaia, amoaren
besoetan.

Hildakoak

Jose Luis Arregi Goitia
Oñatin, otsailaren 15ean. 55 urte.
Fausto Poza Lobo
Bergaran, otsailaren 15ean. 69 urte.
Vidalina Garica Fernandez
Bergaran, otsailaren 15ean. 68 urte.
Candida Uribesalgo Irazola
Arrasaten, otsailaren 15ean. 82 urte.



ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 02

Gaur irratian**Arrasate Irratia**

FM 107.7


'Igo autobusera' | 10:35

Amaia Doyage arraunaria eta Korrikako bekak

Amaia Doyage arrasatear arraunariarekin izango dira hizketan *Mingain dantza* geltokian. Bestalde, AEK-k Korrikari begira ikus-entzunezko bekak deitu ditu eta horren gaineko azalpenak emango ditu Igor Elorduik.

GOITB programazioa

Astelehena, 20

**'Harmailatik' saioan kirolari gainbegiratua****21:15**

Julen Iriondo kazetari oñatiarrak ibarreko taldeen ibilbidea ri gainbegiratua egingo dio. Hainbat partidutako irudi onenak ikusgai.

Martitzena, 21

**'Berbaire' saioan gaurkotasuneko gaiak****22:15**

Mario Deogracias aurkezlearekin batera Mikel Iriar, Mikel Usabiaga eta Elena Laka arituiko dira solasean. Eguneko albiste nagusiak aztergai.

Eguaztena, 22

**Film laburrendako tarte: 'Irreal'****22:15**

Amagoia Lasagabaster kazetariak aurkezturiko 16 mm saioan, *Irreal* animazioa izango da ikusgai oraingo astean.

Eguena, 23

**Debagoieneko albisteak****19:45**

Egunean zehar bailaran gerta-tutakoak jarraitu ahal izango ditugu GOITBko albistegiei esker. Deiane Arrietaren eta Julen Irondoren eskutik.

Egubakoitza, 24

**'Behazulo', Goiatz Aranarekin****19:45**

Debagoienean astean zehar albiste izan diren gaiak jorratuko ditu Goiatz Arana kazetariak. Hainbat lagun gonbidatuko ditu estudiora.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Eguediko saioa' | 12:15

Aisa programa aztergai

Aisa programaren bitartez, etorkinak euskal gizartera gerturatzeko urratsak eman nahi dituzte Udal Euskarategian. Programa horren gainean berberetan egongo dira eguerdi partean. Ikasleen eta irakasleen esperimentzia ezagutzeko aukera.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 11:30

Eusko Legebiltzarraren 25. urteurrena**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Joaquin Almuniari elkarritzeta**Loiola Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

San Inazioren heriotzaren 450. urteurrena

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Behazulo.

14:15 Eltze beroa.

14:30 M1.

14:35 Gezi-bideak

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Munduari bueltaka:

Pakistan.

15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tartea.

15:35 Sendabelarrak.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Ilunpean.

16:15 Klipak.

16:30 M1.

16:35 Gezi-bideak.

16:45 Albisteak.

17:00 Jazz.

17:30 Danbaka.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Erreportajea: Jauregi gasna eta yogourrak.

18:15 Munduari bueltaka:

Pakistan.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klipak.

19:15 16 mm.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak.

20:45 Albisteak.

21:15 Harmailatik.

21:45 Berriak.

22:15 Ilunpean.

22:45 Berriak.

23:15 Jazz zikloa.

23:45 Berriak.

00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire.

14:15 Zera dio.

14:30 M1.

14:35 Gezi-bideak.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Elkartasun bideak.

15:30 M1.

15:35 Sendabelarrak.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Behazulo.

16:15 Klipak.

16:30 M1.

16:35 Gezi-bideak.

16:45 Albisteak.

17:00 Jazz.

17:30 Danbaka.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Erreportajea: Jauregi gasna eta yogourrak.

18:15 Munduari bueltaka: Pakistan.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:00 Klipak.

19:15 16 mm.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak.

20:45 Albisteak.

21:15 Teknopolis.

21:45 Berriak.

22:15 16 mm: Irreal

animazioa.

22:45 Albisteak.

23:15 Erreportajea.

23:45 Berriak.

00:15 Amaiera.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Erreportajea.

14:15 Motzean.

14:30 M1.

14:35 Gezi-bideak: Oñati

bizikletan eta Landa.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Jaun ta Jabe.

15:30 M1.

15:35 Sendabelarrak.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Jazz mintegia.Didier

Ithursarry.

16:15 Klipak.

16:30 M1.

16:35 Gezi-bideak.

16:45 Albisteak.

17:00 Berbaire.

17:30 Eltze beroa.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Ilunpean.

18:15 Teknopolis.

18:45 Albisteak.

19:00 Klipak.

19:15 Erreportajea.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak.

20:45 Albisteak.

21:15 Jaun ta jabe.

21:45 Berriak.

22:15 Didierdu.

22:45 Albisteak.

23:15 Berriak.

00:15 Emisio amaiera.

"Orain 25 urte esan zidaten izango nintzela Oñatiko aurreneko alkate emakumea, eta asmatu egin zuten"

LURDES IDOIAGA |
EAJ-KO ZINEGOTZIA OÑATIN
Berriak, 2006-02-16

"Gaur egun Eskualde Ospitalea osatzen duten eraikinak bota eta berria egingo da eraikin bakarrean"

MIGUEL BUEN |
PSE-EE-KO GIPUZKOAKO IDAZKARI NAGUSIA
Berriak, 2006-02-15

Kamera aurrean

"Orain 25 urte esan zidaten izango nintzela Oñatiko aurreneko alkate emakumea, eta asmatu egin zuten"

LURDES IDOIAGA |
EAJ-KO ZINEGOTZIA OÑATIN
Berriak, 2006-02-16

"Gaur egun Eskualde Ospitalea osatzen duten eraikinak bota eta berria egingo da eraikin bakarrean"

MIGUEL BUEN |
PSE-EE-KO GIPUZKOAKO IDAZKARI NAGUSIA
Berriak, 2006-02-15

'Popeye', 'Montana' eta 'Card sakura'

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

**Marrazki bizidunak:
Egunero, 13:20an eta 20:15ean**

Neska-mutikoek gozatzeko marrazki bizidunak

Otsailaren 20a: 076 zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 20, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan dator. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenean egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazoleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Ana M. Kortabarria Bikuña (Oñati)
- Lierni Legorburu Ibarguren (Antzuola)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko (Saridun bakoitzari bi).

- Jose Luis Eraña Errasti (Aretxabaleta)
- Eneida Ezenarro Arejolaleiba (Bergara)

Otsailaren 27ko sariak



- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko.
(Saridun bakoitzarendako bi)

EIBAR-MALAGA B
futbol partidua
ikusteko sei
gonbidapen.
(Saridun bakoitzarendako bi)



Hamarrekoa

AITOR ZABAleta | AUTO GIDARIA

“Mala letxe handiagoa dut autotik kanpo, gidatzen noanean baino”

Oihana Elortza

1. Baimena atera aurretik hasi zinen autoak gida-tzen? 8 urte ntuela gida-tu nuen lehenengo aldiiz auto bat. Irin zaku bat jartzen nuen eserleku gainean eta beste bat behean pedaletara heltzeko. Bolante azpitik gidatzen nuen orduan.

2. Norena zen autoa? Ber-garako okindegia baten egiten nuen lan orduan eta Citroen 2CV bat zuen nagusiak. Lantokitik baserrira 200 metro inguru zeuden, eta han-txe ibiltzen nintzen.

3. Zer egiten duzu auto ilarrak harrapatzen zaitue-nean? Zigarroa erre eta irratiko albisteak entzun. Musika ere jartzen dut; ozen, gainera. Bestela, hala ere, autoa bera entzutea gustatzen zait.

4. Lehenengoan atera zenuen gidabaimena? Teorikoa bai, baina azterketa praktikoa bigarrenean gainditu nuen. Lehenengoan, gorri zegoen semaforo bat pasatu nuen, Azpeitian. Hurrengo astean berriro joateko esan zidan azterketa egileak.

5. Zenbat auto izan dituzu harrezker? Neureak eta lasterketakoak kontatu, 15 bai, gutxienez. Formulako auto bat bakarrik izan dut; hiru lasterketa bakarrik egin ntu, hirutan apurtu nuen motorra eta kentzea erabaki nuen. 1989an barketa erosio nion Vilariñori.

6. Lehiakortasun handia dago auto gidarien arte-an? Bai. Orain, gainera, lege berri bat egin dute eta dena nahastu dute. Vilariñok Formula 3.000 auto bat ekarri du. Nik ez dut inoiz inongo lasterketa-tan horrelako autorik ikusi, baina hark ekarri du. Errekorra egi-ten ari da orain, eta normala da, oso auto azkarra da eta.

7. Zenbat isun jarri diziki-zte? Azkar joategatik bat ere ez. Gaizki aparkatze-agatik, ordea, batzuk bai. Udal-tzainekin negoziatu behar iza-tentutu horrelakoetan.

8. Autoz edo hegazkinez joaten zara oporreta-ra? Gurago dut autoz, baina Europako autobide horietan lo har dezakezu 120ra joanez gero; eta ez sufritzeko, hegazki-na hartza da onena.



Mobilette lasterketak egiten zituen mutikotan Bergaran. Mekanikari izaten ikasi zuen tailer baten, eta hango nagusiarekin bate-ra auto lasterketetan hasi zen gero. Hasieran gezurra esaten zien gurasoei, baina onartzen du gero asko lagundu diotela. Auto zaharrak ere konpontzen ditu; Simca Rally zahar bat du etxean gordeta. BMW-zalea eta ogi-zalea da gidari bergararra.

9. Inoz egingo zenioke tuning-a zure auto-ari? Ez dut oso gustuko tuning-a. Gurago dut hor gastattu behar dudan diruarekin, garestiagoa edo hobea den ibilgailu bat erosio.

10. Haserretzen zara autobidean zoazela norbaitek autoarekin aurreratzen bazaitu? Ez. Egia esatearren, gidatzen nagoenean baino mala letxe handiagoa dut autotik kampo.



Biharamuna

Iban Arantzabal

Treguarik ez

Ez zeben treguarik emon Piz-tiak taldekuak barikuau, kafe antzokian. Jente gutxi-txo aukeran, baiña kontzertua mundiala. **Josu Izagirre** bideo-jockeyxa barik be ondo: rock-and-rolla. Jakin dot Oñatin daukela hurrengua. Akustikua egingo ei dabe, segi pistia.

Treguarik ez dabe emon, ezta olatuek be. Zenbat surfero, eta kuxkuxero Zumaixa eta Getarixa artian. Kamiñuakin jandako lurra eutsiko ete dau temporaloi. Temporaletik librau ez dana toponomixia. Planeixa biharrian kolo-reztatu dabe kolore triste batekin hondartzioi, gris esnatzen da oin periodikuetan.

Jarraitzan dogu eguna fan eta eguna etorri PP-kuen tregua barik. Geratzeka dihardue "Popularrek" zarataz. **Zapaterok** entzuten dittu entzutekuak! Treguarik ez dator Madrilletik. Espainiako interesei lotuegi dare eta oztopo izango dira **Raxoi** eta konpañia.

Ez da egon treguarik zapatu-ko manifestaziñokuendako be. Ez kalian egon ziran millaka lagun-dako eta are gutxiao hillaren 27xan epaille aurrian egongo diran-dako.

Danok tregua eske, tregua mai-la askotan: politikan, epaitegixetan, kartzeletan, kalian, hedabidie-tan... eta beti eskaka ibili barik emon be egin bihar da ba. Treguarik gaiñian ez berba egindak eta treguarako pausuak emonda gehixago irabazik giiñukela uste dabenetakua naiz. Ez dot berriro aittatu be egingo. Aspertu be egin nau berbiak berak, nahiz eta jakin frentre guztieta dala biharrezko.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767
zenbakira

Deiaren prezioa:
1,2 € + BEZA



Euskal soinu eta
irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonorako bateragaria den eskeintzen ditugun produktuen, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari. Bertan jasoko duzu behareko duzen informazioa guzta.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuraturako, beharekoza da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jarraitze zure horizontailearekin harenmanetan. Alfa ematea doan da eta K3 jasotsean bakarrak ordaindu beharko duzu. Kasu guztieta deia eta GPRS sistemaren alfa ematea doan dira.

* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-4. / * Movistar: deitu 609-4.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jari gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurriara egin ditzakagu abesti eta logoa. Webgune honetan kaleratu eta erabilizaleek eskura dezerlata nahi baduzu, jari gurekin harrenmanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOIKAOK (sms 1) Abestien izena (Abeslaria) I KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Realia | REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Koratua) | AIZKO
Amore amore (Kardadakoa bertsia) | AMORE
Beigjak okertuta (Iñaki Tauri) | BEIGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dob manifest (Imen Mugarria) | DUB
Eguenero (Hertzainak) | EGUNERO
ER Sukarra (EH Sukarrak) | SUKAR
Elos dices miera, nosotros amén (La Polla) | ELOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Etorzkizuna (Etsaiak) | ETORKI

Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIEZA
Hegal egiten (Itzoi) | HEGL
Ikusi (Dolium Tremens) | IKUSI
Iñargia (Ken7) | IKEN
Inpernua eto joka (Galibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertean) | JOKIN
Kaixo (Urri) | KAXKO
Lau Telatu (Itoiz) | ITIZLAU
Leztana Lazten | LAZTA
Lotuta egoi arreki (Kokein) | LOTUTA
Loretxa (Etxekoa) | LORE
Marea Gora (Itoiz) | MAREA
Musturek sartundu (Gatbu) | MUSTUREK
Nicaragua (Koratua) | NICIA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME

Salve (La Polla) | SALVE
Sari Sarri (Koratua) | SARRI
Sorginen leizean (Etxekoa) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO
Txus (La Polla) | TXUS

Trikitixa
Bexamela ta pasta (Maixa ta txixa) | BEXAMELA
Bokespok (Kopla, Junkarla) | BOKESPOK
Hik Ian eta nik ja! (Tapis) | HIK
Itsas ontzi batzen (Kaxano) | ITSAS
Kupela (Gaztede-larraregi) | KUPELA
Mila galderia (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozatzen) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon batzen truke (Alaitz / Maider) | TXANPON

Folk
Arratsalde honestan (Sortean Bele) | SOROTAN
Bai euskalari (Pantxoa) | BAIT
Bakezaleak (Ante Duhadel) | BAKE
Bizkaia Maite (Berilo Lertundu) | BIZKIA
Eperak (Ante Duhadel) | EPERRAI
Euskaldun bermenaren balada (Ixoxi) | EUSKALDUN
Euskaldun bermenaren balada (Ixoxi) | EUSKALDUN
EZ
Txabarriatxu (Mikel Urangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordokia) | ZAINDU

Herrikoia
Bagare! BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Iku Mendizaleak (MENDI)
Pimbo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marija (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermín | FERMIN
San Martzaletako alardea | SAN MARTZIAL

Oi! Ama Euskal Herria (B.Lerundu) | OIAMA
Tirauki (Iñaki) | TIRIA
Txabarriatxu (Mikel Urangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordokia) | ZAINDU

Herritoia
Bagerai! BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Iku Mendizaleak (MENDI)
Pimbo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marija (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermín | FERMIN
San Martzaletako alardea | SAN MARTZIAL

Soinu izena i KODEA
SOINUAK (2 sms) LOGOAK (sms1)

LAU1
NUKLEAR
LORA
ARRANO

LAU3
LORA
ARRANO

JOSETXO ARANTZABAL